



**Sanjoanak
Olaberria eta
Seguran.
Sanpedroak
Mutiloan.**

**Jose Insausti:
'Beti bertsoa
buruan'**

**Abiadura Handiko
Trenaren aurkako
ibilaldia**



2002ko uda
antzizar kiroldegia. tel. 943 88 79 00





BERMEA
3URTE
100.000 Km

Land Rover kontzesionario berria ireki dugu Gipuzkoan. **EUROLAN 4x4**



THE LAND ROVER EXPERIENCE

EUROLAN 4x4 Donsotia-Hernani errepidea (Galarreta) Telefonoa: 943 331 006



GARMENDIA

Tejas y cubiertas S.L.


VACSOL - WR^R TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA

Edozein motatako teilatuak
egiteko prestatuak,
komunitateak, baserriak,
txaletak eta abar

AZKENEKO AURRERAPEN GUZTIAK

AURREKONTUAK NEURRIRA



Maioz industrialdea, 25-26

ORDIZIA

Tel. : 943 161 032 / Faxes: 943 160 842

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

E-mail:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Iñaki Ugalde, Oihana Sarasola, Mari Flor Mendizabal, Aimar Maiz, Edurne Ayuso, Leire Telleria, Jose Insausti eta Amaia Aierbe.

Azaleko argazkia: Jabier Fernandez.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 8.300 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Beasaingo Udala

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia egiten hasi da

Beasaingo Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) izateko eta garatzeko konpromisoa hartu du. Plana prestatzeari ekin diote Beasainen eta uda aldera egingo du. Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean dabil horretarako Beasaingo Udala. Behin plana taxututa herriko elkarte, talde edo herritarrei planari buruzko iritzia eskatuko zaie.

Datozen hiru-lau urteetan hizkuntza-ren normalizazioa eskuratzen jarraitzeko Plan Nagusia da Beasainen egingo dutena. Beasaingo Udalari eta gainerako herri-aginteei hizkuntza-politika egiten lagunduko dien oinarritzko tresna izango da. Dokumentu irekia eta eten gabe egokitze sortua izango da. Azken batean, beasaindarrei euskaraz bizitzeko aukerak ugaritzeko plana zehaztu nahi da, bai maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapena lortzeko.

Euskaraz dakiten beasaindarrak asko ugaritu dira azkeneko 15 urteetan eta gaur egun 10 biztanletatik 6,6 erabiltzaile potentzialak dira. *“Errealitate berri horretara egokitze, Beasainek plan nagusia behar du, euskarari dagokion tokia egiteko, udal barruan eta udalerrian”*, esan zuen Jon Jauregi Beasaingo alkateak ekainaren 11n egin zen aurkezpenean.

Gero eta euskaldun gehiago izan arren, badira indartu beharreko hiru arlo Jauregiaren esanetan: euskararen transmisioa, euskararen erabilera eta euskararen kalitatea.

Euskal Autonomia Erkidegoko 18 udal eta 3 mankomunitate hasita daude Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia lantzen. Udal horietako bat dugu Beasain. Urtea bukatu baino lehen, beasaindarrek EBPN eginda eta onartua izango dute.

Hurrengo alean izango dugu Euskararen Biziberritzeko Plan Nagusiaren zehaztasun gehiago luze eta zabal.

Goierritarra Goierrikan kanpo jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:
Ipar Euskal Herria eta Europa:
Europaz kanpo:

urtean 12 euro
urtean 24 euro
urtean 36 euro

'Herriz herri AHTrik ez' ibilaldia

Goiterrira uztailaren 2an iritsiko da

Bizikletaz eta oinez. Horrela egingo Abiadura Handiko Trenaren aurkako ibilaldia, ekainaren 30etik uztailaren 6ra bitartean. Abiadura Handiko Trenaren 'Euskal Y' egitasmoak kalteturiko herriak lotuko ditu ibilaldiak, "ekologia nahiz gizarte arloetan ondorio larriak eragingo lituzkeen egitasmo hori gelditu beharra aldarrikatzeko", diote Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Plataformakoek.

Abiadura Handiko Trenari oposizioa erakusten dioten hainbat talde eta erakunderen arteko loturatik sortutako ekimena da ibilaldia. "Euskal Herri mailan nola lokal mailan mobilizazioari bultzada bat eman" nahi diote, "makroproiektu horren inguruan nozitzen ari garen erakundeen desinformazio orokorrari eta inposaketari aurre egiteko". Ibilaldi honen bidez, AHTren egitasmoak berekin ekarriko lituzkeen kalte ekologiko, sozial eta ekonomikoak buruz, baita nekazaritzari eta lurraldearen orekari eragingo lizkiekeenari buruz ere, "jendea ohartarazteko, informatzeko, mobilizatzeko eta, finean, egitasmo hori geldiarazteko gure herrietan jada egiten ari garen oposizioa zabaldu nahi dugu".



AHTren aurkako plataformak, "Espainiako gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak azken aldian bideratu duten inposaketa eta manipulazio kapitulu berria gaitzesteko mobilizazioa eta ekintza informatiboak areagotuko" ditu.

Jendearen partehartzea errazteko, udalerrien arteko zatiak bizikletaz egingo dira eta kalteturiko herriak oinez zeharkatuko ditu. Ibilaldiaren azken egunean, uztailaren 6an, manifestazioa egingo da Bilbon.

Herriz herri

Ekainaren 30ean Gasteiztik abiatuko da ibilaldia, 'Herriz Herri AHTrik ez' lelopean.

Goierriin, bi egunetan Goiterrira uztailaren 2an, asteartean, iritsiko da martxa.

Bergararik Itsasondorako etapen, Ezkio-Itsasotik sartuko da. Ormaiztegitik, Beasaindik eta Ordiziatik barrena, Itsasondoraino iritsiko da. Hurrengo egunean, Legorretatik pasatuz, Hernaniraino iritsiko da ibilaldia.

Ezkio-Itsasora, esan bezala, uztailaren 2an, eguerdian iritsiko da martxa. Bertan bazkalduko dute parte hartzaile guztiak. Arratsaldeko 5etan abiatuko dira berriz ere. Ormaiztegitik pasatu ondoren, Beasaina 6etan iritsiko dira. Harrera egin ondoren, ekitaldia izango da Zubimuzuz plazan. Ordiziara 7etan iritsiko dira. Arboledan egingo dira harrera eta ekitaldia.

Uztailaren 2ko etapa Itsasondoren amaituko da. Arratsaldeko 8ak aldean iristea aurreikusita dago. Ekitaldixoa egin eta afaria izango da bertan.

Hurrengo egunean, uztailaren 3an, goizeko 11etan abiatuko da martxa Itsasodotik, Legorreta aldera, Goierri agur esanez.



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35	Elosegi, 14	Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58	☎ 943 88 72 79	☎ 943 16 00 44
BEASAIN	LAZKAO	ORDIZIA

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

Kimetz ipuin lehiaketa

Ordiziako Kimetz Emakume Taldeak antolatutako VIII. Ipuin lehiaketan, Zigor Etxaniz eta Jose Luis Nuñez izan dira irabazleak. Zigor Etxaniz oriotarra euskarazko atalean eta Jose Luis Nuñez gaztelarazkoan. 601 euroko saria jaso zuen bakoitzak.

61 lan aurkeztu dira lehiaketara, iazkoen aldean gutxi, 119 aurkeztu baitziren. 50 gaztelarazkoak eta 11 euskarazkoak.



Aitor Garmendia

Itsasondoko txirrindularia bigarren izan zen Alemaniako itzulian. Lehenengo etapa Aitor Garmendiak (Coast) irabazi zuen baina azkenean, Igor Gonzalez Galdeanoeren atzetik gelditu zen sailkapen nagusian.



Rural) herritarrak. Herrian, herritarra garaile.



Joseba Beloki

Euskal Bizikletako azkeneko etapa irabazi zuen, Arraten, Joseba Beloki lazkaotarrak. Frantziako Tourra prestatzen ari da gogotik Beloki, eta uztailean Tourra hasi aurretik, Espainiako txapelketa baka- rrik jokatuko du.

Dioni Galparsoro

Ataun San Martin txirrindu proba irabazi zuen ekainaren 9an, Dioni Galparsoro (Caja

Aitor Perez Arrieta

Afizionatuetan, Gipuzkoako txapeldun dugu Aitor Perez Arrieta (Caja Rural) zegama-

GOIERRITARRA aldizkariaren oharra

Urte hasieran GOIERRITARRA aldizkariak hasi zuen laguntzaile kanpaina dela eta, laguntzaileei zera adierazi nahi dizue GOIERRITARRA aldizkariak:

ekainaren 28a baino lehen laguntzaile egin zaretenoi, aurrez emandako kontu korronte zenbakitik, 12 euro kobratuko zaizkizuela uztailaren 2an. Hortik aurrera egiten zaretenoi, urtearen amaieran kobratuko zaizue.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

Galardiko tunela, etab.

Lehen ere idatzita nago Goierritarran Galardiko tunelaren izenaz (Ordizia eta Beasain artekoarenaz alegia), baina berriro ere idatzi beharrean naiz hemengo lehengo izen jatorrei eutsi nahi badiegu.

Aitor Calvillok Ordiziako kronikan berriz ere "Upabiko tunela" izendatu du eta hori oker dago. Upabi Ordiziako baserria, sagardotegi izana, horixe da, baserria, etxea. Hura baino gorago eta tuneletik gertuago zen Agerre baserria (oraindik orubea antzematen da), baina inguru horietako lehengo euskaldunek, tunelari inoiz ez diote esan Agerreko tunela eta are gutxiago Upabiko tunela, hura urrunago dago eta. Tunelak, izenen bat hartzekotan, zeharkatzen duen mendiarena hartu behar du. Adibide garbiak daude Europa guztian. Bilbon adibidez, Malmasin da mendia eta tunela Malmasingo tunela da. Kasu batzuetan hala ere inguruko herriren batena eman izan zaie tunelei eta nire ustez hortik dator kasu honetan ere nahaste txar hau.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, "Túnel de Beasain" izena jarri zion eta bi okerrekin jarri ere. Batetik espainieraz bataiatu zuen eta bestetik bere izena, mendiarena, jan zuen. Orduan, erreakzioz, ordiziarrek, "Túnel de Upabi" izena jarri zuten Ordiziako aldean eta beste bi oker egin zituzten eta zoritxarrez gaur da eguna, oraindik behar bezala errotulatu ez dena. Tunel horrek, Galardi mendia zeharkatzen du, beraz *Galardiko tunela* da. Arazoa zera da, gaur egun Ordizian, Beasainen eta Lazkaon (hiru herrien muga baitago Galardi gainean) oso gutxi dakigula denok muturren aurrean daukagun mendi horren izena. Ai Agerreko Anttoni zenak, Txintxurretako Antonio zenak, Upabiko eta Lazkaibarko zaharrek eta beren garai-koek burua altxatuko balute...

Antzeko zerbait gertatzen da Malkasko hitzarekin. Gaur egun Beasainen eta Ordizian gehiena erabiltzen dena da baina ez horregatik zuzenena. Ordiziako agirietan *Lazkaibarko zubia* azaltzen da orain berritu asmo den zubi hori

izendatzeko. Zubi hori gainera erdibanakoa dute Ordiziak eta Beasainek.

Orain dela mende bat pasatxo, hortik abiatu eta Lizarrustin zehar errepidea egin zenean, errepide horren ibilbide-bukaera Tarragonan izan zen eta zubi horretan, errotulu bat jarri zuten gezi batekin *Tarragona* izenarekin bidea haraino zihoala adierazteko. Hortik nolabait eta bertako izenak ez jartzeko izan dugun ohiturarengatik, horko berri ez zekien jendea, Tarragonako zubia esaten hasi zen eta hizkerak gero Tarrananeko zubia esatera eramanez. Geroago ordea, *Tarragona* hori kendu zuten eta betiko erdaldun graziadunen batek *Malcasco* moduan bataiatu zuen eta orain Udalak ere Malkasko deitzen ari dira. Izen hori, desegokia bezain berria da. Erregu berezi bat egiten diet Ordiziako Udalari eta Beasaingoari nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiari, zubi hori aipatu behar dutenean *Lazkaibarko zubia* idatz dezaten, bai bertan eta baita paper eta proiektuetan ere. Zer esanik

ez Ordiziako eta Beasaingo berriemaile guztiei ere, zubiaren izena ongi erabil dezaten.

Lehengo izenik jatorrenak geuk lardaskatzen baditugu, zer etorkizun itxaron dezakegu? Izenda ditzagun lekuak eta gauzak beren jatorrizko izen egokiez!

*Andoni Sarriegi Eskisabel
Beasaingo Udaleko Euskara
Zerbitzuko Arduraduna*

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

MG LAFAR

Argiztapenak



Euskal Pilota, 4 eta 5
☎ eta faxa: 943 88 86 88
☎ mugikorrak: 619 46 22 65
eta 619 46 22 68
ORDIZIA

URBITARTE

tolare
sagardotegia

**Ekainaren 22an oporrak
hartzen ditugu**

**Uztailaren 16tik aurrera
erretegi moduan zabalik**

sagardoa txotxetik dastatzeko
aukera ere iznago da

Tel.: 943 18 01 19
Ergoiena Auzoa ATAUN

Kalitatezko elikadura

Elikagaien produkzio eta kontsumoa beharrezkoa izateaz gain, honek eragina du gure ekonomian, gure gizartean eta kasu askotan gure ingurumenean, eta premiazkoe-na osasuna ziurtatzea izan arren, beste alderdi hauek ere ez ditugu ahaztu behar.

Bestalde, gure ingurumenaren egoerak ere eragin handia du elikadura kateko zati desberdinetan. Adb: kutsaturiko belardi batek, bertan jaten duten abereen haragia edo eta aske dabiltzan oiloak kutsa ditzake, eta aldi berean gu behi horren haragia edo oilo horren arraultzak kontsumitzerakoan. Hori dela eta, ingurumen-politika egoki bat jarraitzeak izugarrizko garrantzia du kontsumitzaileentzako elikagai osasuntsu bat eskaintzerako orduan.

Azken urteotan gertatu diren istiluak ikusirik, dioxinak belgiar oilaskoetan, behi eroen arazoa adibide, bat baino gehiagori sartu zaigu zer jaten dugun ba ote dakigunaren duda. Azken batean, irabazi gehiago edukitzearen ahal den kostu gutxiengarekin produkzio maximoa bilatzean oinarritzen den gaur egungo filosofiak honako emaitzak eman dizkigu, inolako kalitaterik eskaintzen ez duten elikagaiak merkaturatzean kontsumitzaileen osasuna kolokan jarriaz.

Argi geratu da elikagaien kate produkzioan egiten diren kontrolak ez direla nahikoak eta kalitate kontzeptu horren barruan segurtasuna ez zegoela ziurtatua. Honek elikagaien segurtasuna ziurtatuko duen europar erakunde bat sortzearen beharra bultzatu du. Hartu diren neurriek elikagaiak kontsumitzearen arriskua minimoa izatea (ez baita existitzen zero arriskurik) dute helburutzat, bai pertsonen zuzentzen zaien eli-



kagaiei dagokienean bai eta abereei ematen zaienetan ere. Ingurumenarekin zuzenki lotutako neurriak ere hartu dira. Euskal Komunitate Erkidegoari dagokionean, Segurtasun Alimentariorako komite bat sortu berri da.

Guk kontsumitzaile garen partetik kalitatezko elikagaien aldeko apostua egin dezakegu, haxe baita bide bakarra.

Baina zer da kalitatea? Kontsumitzaileon ikuspuntutik, gure beharrak asetzeko produktu batek duen ahalmena izango litzateke. Baina kalitatea betebeharrak edo obligazio bat izateaz gain, kontsumitzaileon segurtasuna ere ziurtatu behar du, eta horretarako beharrezko egiten da elikagaia baratza bertatik hasi eta gure etxera iristen zaigunera arte kontrolatzea.

Hala eta guztiz ere, kalitatea zerbait gehiago bezala ere ulertu behar da nire ustez. Hau da, elikagai hori produzitzen duenari errenta duin bat ematea, ingurumenarekin errespetuz jokatzeko duen produkzio era bat izatea edo eta abereen ongizatea kontutan izatea ere barneratu behar ditu besteak beste. Hala, itxuraz berdinak diren bi elikagai ez dira berdinak, leku guztietan ez baita berdin produzitzen, eta produkzio era guztiak ez baitira berdinak.

Jakin, jakin behar da, gauzak ongi eta txukun egiteak bere kostu bat duela. Agian garesti irudituko zaigu baina garesti izatearena ere kontzeptu erlatiboa da. Ez al da garestiagoa inolako kalitaterik eskaintzen ez duen produktu bat, nahiz eta hau guxtiago ordaindu?

Amaia Aierbe

JAKIN BEHARREKOA

✗ **Elgeako Parke Eolikoak** ikatza erregai duen zentral termikoan urtean emititzen diren honako poluitzaile hauek saihesten ditu: 1.500 tona karbono dioxido (berotegi-efektuaren eragile nagusia) eta 6,5 tona sufre oxido (euri azidoaren eragile nagusia).

✗ Gizakiak historian zehar **7.000 landare-espezie** inguru erabili ditu bere **elika-durarako**; gaur egun 20 batekin (garia, artoa, arroza eta patata, besteak beste) asetzen du elikadura premien %90 eta, gainera, hauetako gehienak Neolitotik aurkituak dira. Baina egun badaude gutxienez 75.000 landare-espezie jateko parteak dituztenak eta horietako batzuk gaur kultibatzen direnak baino hobekiago dira.

✗ Aspalidanik paretak margotzeko **erabili izan ditugun margoak** beruna eta kadmioa bezalako elementu toxiko ugari dituzte. Hauen ordeztu oinarritzat ur portzentai handia duten margoak erabili ditzakegu alternatiba gisa, erderaz "pinturas al agua" deiturikoak. Ziur beste margoekin bezain polita geratuko zaizuela.

✗ Gaur egun **1,4 milioi bizidun espezie desberdin** ezagutzen dira mundu osoan. Hala ere, jakitunek 4 milioitik gora egun behar dutela diote.

✗ Peruko **arbola batean 43 txingurri espezie** bildu dira, gutxi gorabehera Britaniar Irla guztietan aurkitu daitekeen txingurri espezie kopuru berbera.

"Asko eta txarra baino gutxi eta ona hobe, ziur gure osasunak zein inguruak eskertuko digula"

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

Olaberriako San Joan jaien egitaraua

Ekainak 21, ostirala:

Umeen eguna:

13:30etan: Jaiei hasiera emateko, Txupinazoa udaletxeko balkoitik.

14:00etan: Udalak herriko haur eta gazteei eskainitako bazkaria.

15:00etan: Jolas Parkea: puzgarriak, zezen mekanikoa....

19:00etan: Buruhandien irteera.

19:30etan: Ume festaren amaiera.

20:00etan: Talo eta sagardo dastaketa.

20:30etan: Gipuzkoako Herri arteko Txapelketako finalerdiko pelota partidua: Olaberria- Donostia.

21:00etan: Dantzaldia "Juancho, El Charro"-rekin.



Ekainak 22, larunbata:

10:00etan: Jubenil mailako XIII. Gipuzkoako Itzuliaren irteera.

10:30etan: Herri mailako Plater Tiraketa. Antolatzailea: Olaberriko Tiro Elkartea.

11:00etan: Gazte mailako IV. Pelota txapelketa.

11:45etan: Txirrindulari Itzuliaren amaiera.

16:00etan: Herri mailako

XVII. Pala Txapelketa. Antolatzailea: Arkupe Elkartea.

18:00etan: "Laugarren tenorea" ikuskizuna Trapu Zaharra taldearekin.

19:00etan: Gipuzkoako Segalari Txapelketako bigarren kanporaketa. Parte hartzaileak: Jesus M^a Ormaetxea, Bengoetxea II, Unai Navarro eta Jose Luis Garaia.

21:00etan: Gazte afaria.

23:00etan: Su artifizialak Pi-

rotecniak Zaragozanaren eskutik.

23:30etan: Gomasalto.

24:00etan: DJ's jaialdia Joseina Etxeberriarekin.

Ekainak 23, igandea:

9:30etan: Probintzi mailako Bola Txapelketa. Antolatzailea: Arkupe Elkartea. (Izenemate ordutegia: 9,30etatik 12,00etara).

10:00etan: Goiz erezia.

11:00etan: Probintzi mailako Plater Tiraketa. Antolatzailea: Olaberriko Tiro Elkartea.

11:00etan: Meza nagusia.


16:00etan: Probintzi mailako Plater Tiraketaren jarraipena.

18,00etan: Asto karrera.

19,00etan: Ohiko Loreen bedeinkapena, elizako atarian.

20:00etan: San Joan Zuhaitzaren igoketa.

21:00etan: Parrilada.



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

ALKATEAREN AGURRA

Zer moduz, olaberritarak?

Beste behin, ia konturatu ere ez garelarik, uda iritsi zaigu eta berarekin SAN JUAN, gure jaietako patroia dena, eta honek gogora arazten digu berari ohore eta festa egiteko garaia dela.

Urtero bezala, lerro hauen bidez esan nahi dizuet jaiak mimo eta ilusioz prestatu direla, guztioi irits dakizkizuen piska bat.

Zuen balkoiak galaz jantzi, zapia lepoan jarri, eta familiarteko, lagun eta bizilagunak gonbidatu, ikus dezaten nola bizi ditugun festak, eta hauetaz goza dezaten gurekin batera.

Gure artean egon ezin duten guztiak gogoratzen ditugu, bai urrun daudelako edo utzi gaituztelako, eta beraien txokoetatik poztuko dira guztiok gure herria den OLABERRIAN arlo guztietan elkartuta ikustean, eta batez ere alaienak diren momentuetan, hau da, gure jaietan.

Ondo pasa!

Alkatea
Txomin Mendoza Perez



OLABERRIAKO
UDALA



22:00etan: San Joan sua. Bertan izango da Lazkaoko Oin-Arin dantza taldea.

22:30.ean: Aukeran taldearekin Sutargi dantza ikuskizuna.

Ekainak 24, astelehena: San Joan eguna:

11:00etan: Meza Nagusia.

11:45ean: Hamaiketakoa.

Ondoren: Angel M^a Peñaga-

rikano eta Aitor Mendiluze bertsolariak.

17:00etan: Gazte jokoak eta tailerrak.

19:30ean: Buruhandien irteera.

22:00etan: Zine emanaldia: lehenengo emanaldia gazte-txoentzat eta bigarrena helduentzat.

Argazkiak: Jabier Fernandez.

Oharrak

Goming

Goming egin nahi duenak, salto bakoitzeko 10 euro ordaindu beharko ditu.

Parrilada

Parriladan parte hartu nahi duenak, aurrez txartela honako lekuetan hartu ahal izango du: Udaletxean, Zezilionean edo Ludotekan. Prezioa: 10 euro. Epea ekainaren 21ean bukatuko da.

Gazte afaria

Adina: 16tik 35 urtera. Prezioa: 12 euro. Informazioa eta txartel salmenta Udaletxean edo Ludotekan, ekainaren 20a baino lehen.

Su artifizialak

Segurtasun neurriengatik, Kasko-gune guztia jendeari itxita egongo da 22:45etatik aurrera. Beraz, aholkatzen den lekua Arrieta jatetxearen atzealdea da.

Aparkalekuak

Plaza ezingo denez aparkaleku bezala erabili, ibilgailuen jabe-ei udaltzainaren aholkuak jarraitzea eskatzen zaie. Bestalde, autoak Belakasoron eta urbanizazio berriko aparkalekuan utzi ahal izango dira.



LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garaiea

AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

ILARGI
AUTOELEKTRIZITATEA



Bosch eta Veeder-root
takografoen zerbitzu
ofiziala



Jai zoriontsuak denoi!


☎ 943 88 32 12

Iurre auzoa **OLABERRIA**



N-1 errepidea, lurre auzoa

☎ 943 88 43 01 **OLABERRIA**



JEFASA S.L.

LANTEGI
HORNIGAIK

☎ 943 88 09 60
☎ 943 88 17 43
Faxa: 943 88 69 05
201 Industrialdea, 6. pab.

OLABERRIA

97 posta kutxa
BEASAIN

ARRIETA

*Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 **OLABERRIA**

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

OPEL
GIAUTO



San Joan zoriontsuak denoi!

N-1 errep. Madrid-Irun

☎ 943 88 51 50
OLABERRIA

Olaberriako Talogile taldea

Olaberriko udala etengabe ari da herria bizitu eta elkartzeko ekimenak sortuz. Horietako adibide bat da Olaberriako Talogile taldea. 1999an osatu zen taldea eta giro ederrean, aurrera gustura darraite. Aurten ere, ekainaren 21ean, iluntzean, dastatu ahal izango dira olaberritarren taloak.



1999an osatu zen Olaberriako Talogile taldea, martxoan izaten den kultur astean. Lehenengo aldian ondo atera zenez, taldeak oraindik ere aurrera jarraitzen du. Urtean bi aldiz, kultur astean eta San Joan jaietan elkartzeko dira, "Kanpoko talogileak ekarri beharrean, herrikook egitea zen helburua, herriko jendea elkartu eta koadrilatxo bat sortuz". Beraz esan liteke, taloak eman diela elkar ezagutu eta harremanak sendotzeko aukera.

13-14 lagunekoko taldea osatu zen. Batek bakarrik zekeen taloa egiten, etxean ikasita. Gainerakoei erakutsi, eta bakoitza bere lanean, emaitza ona kaleratzen dute.

Materiala udalak jartzen du eta lana Talogile taldekoen esku gelditzen da. Prezio sinbolikoa kobratzen dute. "Helburua ez da dirua ateratzea, festetan parte hartzea baizik".

Talo festa honekin, arratsaldeko eta gaueko ekitaldiak uztartzen dira, "tartea bete egiten da, bestela jendea afaltzera etxera joan eta gero

kosta egiten baitzaie berriz festara itzultzea".

Arrakasta

Taloa, hirugiharra eta txori-zoarekin jaten da gehien. "14na kilo bakoitzetik", zehaztu digute taldekideek. Txokolatea eta gazta ere izaten da aukeran. "Taloa dezentekoa egiten dugu eta barrukoa ere itxuran jartzen dugu". Hori bai, taldekideek egin beharra bukatutakoan, sobratutako taloak esnearekin jaten dituzte.

Olaberrian arrakasta duen ekitaldia bihurtu da bai jaie-

tan, bai kultur astean. Olaberritarrek gogoratzen dutenez, "iaz San Joanetan, izugarriko beroa egiten zuen eta 40 kilo artirinekin egindako guztia saldu zen".

Sobratu denetan, apaizaren bidez, zaharren egoitzetara-eta bideratu izan dute.

Jakina denez, artirinarekin egiten da taloa. Orain dela urtebetera arte, Idiazabalgo errostatik ekartzen zuten artirina. Orain, Alegitik, egokiena hangoa iruditu baitzaie. Izan ere, alde handia baitago artirin batetik bestera: "alde ateratzen da. Gauza berdin-berdinak egin, eta ezberdinak ateratzen dira".

Kultur astean Arkupe elkartearen egiten dituzte taloak. San Joanetan, plazan, baserri-tar jantziz jantzita. Beharrezko azpiegitura, inguruko herrietako talogileei alokatzen dizkie.

6 butanorekin egiten dute sua, gainean txapa jarrita. "Beroa mantendu egin behar da taloa egiteko. Erdi-hotza egonez gero, taloa gogortu egiten da eta ez da ondo ateratzen. Mantendutako beroa



✱ Bankete, ezkontza, despedida eta ospakizunetarako eskatu aurrekontuak.

✱ Asteburuetako menuak.

Larunbatetan afal ostean musika izaten da

Jai zoriontsuak igaro ditzazuela!

Merkatal zentrua ☎ 943 16 02 15 OLABERRIA

INYELEC

Auto elektrizitatea

Telefónica
MoviStar

Iurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 805064

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

JOSE MARTINEZ ARROYO
BULKANIZATUAK

Marratuak, llanta eta pneumatiko salmenta

☎ 943 88 05 66 (Tailerra)
☎ 943 88 16 69

Iurre Auzoa
OLABERRIA



edukiz gero, ondo ateratzen dira. Gainera segidan egin behar izaten dira eta su ona behar da”.

Erakustaldiak

“Jende askok eta askok ez daki taloa nola egiten den. Guk dena bertan egiten dugu eta erakutsi egiten dugu”, diote olaberritarrek.

Bi ikastaro moduko ere eman dituzte. Bat herriko txikienei eta bestea helduenei.

“Erakutsi eta beraiek taloa egiten jarri ditugu. Taloak berez ez du ezer baina bereal-diko festak egiten ditugu”.

Jendeari gainera gustatu egiten zaio taloa. Zenbait lekutan, izugarritzko jende ilarak egoten dira taloa erosteko. Arrakasta hori zergatik ote den galdetu diegu. “Gutxitan jaten delako-edo, etxean ez da jaten”.

Garai batean nahikoa egin zutenak ere badira. “Lehen

garai batean taloa askotan izaten zen. Kalean bertan jaiotakoek ez dakite zer den taloa. Baserrian gaia izan genuen; baserrikoa da taloa”.

Goierrin talogile talde ugari ditugu, Lazkaon, Seguran eta Ataunen kasu. Hauek herriz herri ibili ohi dira. Olaberritarrek ez daukate horrelako intentziorik. “Momentuan inork ez digu eskatu baina egia esan, okurritu ere ez zaigu egin”.

Bukatzeko, bitxikeria bat kontatu digute Talogile taldekoek. “Urte batean, Golde Apple Quartet-koek kontzertua eman behar zuten eta hemen izan ziren taloak jaten. Asko gozatu omen zuten jaten eta kontzertuan aipatu egin zuten”.

Hori bai, lerro hauen bitartez, guztiok gonbidatu nahi zaituzte olaberritarrek, San Joan jaietara.

Argazkiak: Jabier Fernandez.




Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

IBAI ONDO



AROZTEGIA

instalazio berriak

Altzariak neurria

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Argitarapen honen ediziozko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

San Joan jaiak Seguran

Ekainak 21, ostirala:

20:00etan: Zopa Pertzaren jaitsiera. Pregoia. Bokadutxo plazan.

Ondoren: Mozorrotuak plazan eta kalejiran.

23:00etan: 'Iraileko 6'.

Ekainak 22, larunbata:

09:30ean: Arrantza txapelketa.

10:30ean: Kriseilu txistulari taldearen kalejira.

11:00etan: Haurrentzat marrazki jai plazan.

09:30etik 11:00etara: Gipuzkoako Toka eta Bola lehiaketa.

12:00etan: Kilkir txaranga egun osoz herrian zehar ibiliko da.

12:00etan: Koadrilen arteko II. Futbito txapelketaren finala.

15:00etan: Herriko plazan, koadrilen arteko bazkaria.



16:30ean: XLV. San Joan txirindulari proba (Sub 23 eta elite maila).

17:00etatik 18:00etara: Gipuzkoako Toka eta Bola lehiaketa.

18:00etan: Detraka taldearen 'Txikiglub' lana herriko plazan.

19:30ean: Erraldoiak eta buruhandiak.

23:30ean: Muganix taldearekin dantzaldia herriko plazan.

Ekainak 23, igandea:

12:00etan: Oria txaranga kaleetan zehar.

13:00etan: Segurako txistularien Alardea, erraldoi eta buruhandiekin.

14:00etan: Lorez apaindutako atari eta balkoi politenei sari banatzea.

18:00etan: 'Ume Etxe'-koen tailerrak plazan.

18:00etan: Plazan jokoak.

23:00etan: San Joan Sua.

23:00etan: Laiotz taldea.

Ekainak 24, astelehena:

09:45ean: 'Segurako alborda' Kriseilu taldeko txistulariekin.

10:45ean: Alkate doinuaz elizara bidean.

10:30ean: San Joan Prozesioa eta Meza nagusia.

Ondoren: Arabarren plazan, herriko korua eta hamaiketakoa. San Joan Egoitzara bisita.

12:00etan: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak.

Egun osoz: Kar-ovni eta jolasak pilotaleku ondoan.

13:00etan: Herri kirolak plazan: trontzan, Latasa aita-semeak eta Intxausti osaba-ilobak; Ingudearekin, Latasa eta Intxausti; Aizkoran, Arria V. eta Iñaki Azurmendi; eta harr jasotzen, Goenatxo II..

17:00etatik 20:00etara: Kar-ovni eta jolasak pilotaleku ondoan.

ANTONKALE
EDARITEGIA
SEGURA



OTATZA DOLARE SAGARDOEGIA

Uda garaian erretegi moduan ere zabalik, terraza eta guzti

Zatoz probatzera!

Ostiral, larunbat eta igande eguerdietan zabalik

☎ 943 80 17 57 ZERAIN

IMAZ Jatetxea

- ◆ Eguneroko bazkariak
- ◆ Karta

Festa zoriontsuak izan!

Kale Nagusia, 27

☎ 943 80 10 25 - 943 80 13 77

SEGURA

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Isuses industrialdea - ARAMA

Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**



amatriain
f r u t a k

Jai zoriontsuak denoi!

Tel.: 943 80 11 77

Zurbano kalea 22, beheka

SEGURA

ku ondoan.

17:00etan: Koskola txaranga herrian zehar.

18:30ean: Pilota partiduak: Saralegi-Begino Leiza-Albizuriren aurka; eta Alustiza-Peñagarikano Koka-Zearra-ren aurka.

20:00etan: Erraldoiak eta bu-ruhandiak.

23:30ean: Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia plazan.

Ekainak 25, asteartea:

11:00etan: Kriseilu Txistula-ri taldearekin kalejira.

12:00etatik 14:00etara: Tren berezia herrian zehar.

12:00etan: Toka, igel eta bo-te jokoak Atsedenen.

12:30ean: Tobera Musika Eskolako emanaldia plazan.

13:00etan: Toka txapelketa herrikoia plazan.

17:00etatik 20:00etara: Tren berezia herrian zehar.



18:00etan: Txotxongilo taldearen 'Euskal ipuinak' antzezlan, plazan.

19:30ean: Erraldoiak eta bu-ruhandiak.

20:00etan: Poteo elegantea.

20:00etatik 22:00etara eta

23:30etik 01:00era: Egan taldearekin dantzaldia plazan.

24:00etan: Zopa Pertzaren igoera eta agurra.

Erakusketak Ardixarran

Jaietan, Ardixarra etxean irekita egongo da. Bi erakusketa egongo dira: Laiotz Herri Eskolako ikasleek egindako esku lanen erakusketa eta Javier Sotoren pintura erakusketa.



F.M. 89.2

EGUNEKO 24 ORDUAK ZUREKIN



KENDU

S. Coop. Ltda.

Ebaketa tresnetan
Europako kalitaterik onena
salneurri erabat konpetigarrietan

San Joan jai zoriontsuak denoi!

Industrialdea, z/g
SEGURA

☎ 943 80 13 40
Faxa: 943 80 19 05



Jaietan ere, euskal preso eta iheslariak gure artean izanen dira. Elorripetik besarkada iraultzaile bat guztiei eta ondo pasa aurtengo jaietan.

☎ 943 80 10 02 **SEGURA**


Segurako bertsolariak bertso jarrien liburua idatzi du:

Jose Insausti: 'Beti bertsoa buruan'

Auspoa argitaletxeak argitaratu du Jose Insausti segurarraren 'Beti bertsoa buruan' liburua. 1000 bertsotik gora biltzen dira bertan, gai eta garai ezberdinetakoak.

"Liburu edo antzeko zerbait nik ere egingo nuala garai batean esan balidate, arkitekto izatea baino zailago irudituko zitzaidan, nere eskolarik eza eta gainerako okerrak ezagututa".

Honela dio Jose Insaustik 'Beti bertsoa buruan' liburua-ren sarrerako idatzian. Segurako Aizkoeta baserriko semea da Jose Insausti. 66 urte ditu. 15 urterekin jarri zituen lehenengo bertsoak, aitona hil zenean. 18 urte betetzeko zituenean, amonari ere jarri egin zizkion amona bertsozalea zen eta. "Aurreneko semetxoa hil egin zitzaigun, gero aita eta amari jarri egin nizkien. 5 hildakoei jarritako 60 bat bertso ateratzen ziren



eta zer egin ez nekien. Aita Zavalak esan zidan, aitonari eta amonari jarritakoak azaldu beharrean zeudela, hain gaztetan jarritako bertsoak oso gutxi izaten dira eta. Orduan nik esan nien, aitona eta amonari jarritakoak jartzekotan, besteei jarritakoak jartzekoa ere logikoa litzatekeela". Familiakoen bertsoen aurretik eta atzetik, beste gai ugari jorratu ditu Insaustik: Segurari, Aizkorriari, doktrinari buruzkoak, garai bateko bizimodua, eztei afari batera joan eta autoari bi gupil kendu zizkidatenekoak, artozuritzea zer zen, morroien bizi-

tza, suari jarritakoak, txakurrari jarritakoak, eguraldiari buruzkoak... Umorezko gaiak, zein gai serioak.

Guztira 1.000 bat bertso. Segurarrak gehiago ere bazituen idatziak, baina aukera egin behar izan du. Duela 12 urte ateratzekoa zen liburua baina aukeraketa egin behar izan duenez, luzatu egin zaio lana. Penatxo bat badu Insaustik: "liburuan bizirik azaltzen diren pertsonaia batzuk hil egin dira bitarte horretan. Nabarmenena Lazkao Txikirena da. 1990-1991 aurretik egindakoak dira bertsoak". Beste pena bat ere

badu segurarrak: zenbait bertso galdu izana.

Bertsoei hitzaurretxo bana egin die segurarrak. "Sarri nire bizitzan ikusi dut, bertsolariak bertsoak jarri eta hain garbi ez egotea. Ni bertsoak beti jartzen joan naiz, gaztetatik, eta gero bertso horiek hartu eta hitzaurre lana egin diet".

Antonio Zavalak liburua-ren hitzaurrean adierazi duenez, "guk ezagutzen ez genuen bere beste alderdi bat erakutsi digu: prosalari ona ere badela, alegia".

Goierriko euskaran idatzia dago liburua: "Euskera ere nahiko nabarmena izango du liburu honek. Hemen, Goierrikoa, alegia. Zerbait aldatzea pentsatu dut. Baina bertsoak ere euskera hontantxe dauzkat eginak, edo holamoduz; eta batean aldatzen hasten banaiz, beste mutiko ari gertatua seguru dago nerekin ere; usterik gutxiena eta premiarik gehiena dagoen lekuan, hemengo hutsa sartu", zehaztu du Insaustik.

Ekainak 21tik 25ra SAN JOAN JAIK

- > J. SOTOren pintura erakusketa
- > Zopa pertzaren jeitxiera
- > Musika, antzerki, umore, danborrada, kirolak, bertsoak, jolasak etabar.

SE
GU
RA
UDALA

ONGI ETORRIA KANPOTARREI eta
Aloña, Xabier eta etortzerik ez duzuenoi GURE AGURRA!!!

Segurako alkatea
Luis Mari Telleria

SAN
Joan
jaiak 2002
SEGURA

S E G U R A

Beti bertsoa buruan

Horrelaxe izan da bai Jose Insaustiren kasuan. Zaletasuna nondik datorkion galdetu diogu: "gure amak bertso asko zekizkien. Ez paperetik ikasitakoak. Bera neskame ere ibilitakoa zen eta batak eta besteak kantatzen zutenak tokatu egingo ziren eta bertso asko zekizkien gure amak. Ehunkak jakingo zituen, gehienak Xenpelarrenak. Zapirainek jarritako Brabanteko Jenobabenarenak ere kantatzen zituen. Ehundik gora bertso ziren. Baina denak ikasi nituen. Eta, nik orduan bezala, gertakizun hau sinistu ezker, negarra aisa ateratzen duten bertsoak dira hauek. 12 urterako laurendik gora bertso jakingo nituen", dio Joxe Insaustik.

Bat-bateko jardunean beranduago hasi zen, taberna giroan, bertsolari izatea oso ondo ikusita ez zegoen garaian. "Gu baserrikoak izanik, kalera gutxi joaten ginen, 16 bat urtera arte. Gero txarkuteria bazen Seguran eta han hasi nintzen lanean. Orduan hasi ginen irtetzen. Zapatuan arrantxoren bat egiten bagenuen tabernan, beti izaten zen bertsoa. Baina Segura ez zen bertsolari herria. Miraria bezala zen bertsotan egitea". Jendeari bertsoa asko gustatzen zitzaion Insaustik gogoratu duenez, "baina bertsolaria oso gaizki ikusia zegoen. Inork ez zuen nahi semea bertsolaria izatea. Nik ez nuen arazo hori izan. Bertsolariagatik disparateak



"Alpertu aldian nago eta geroxeago hasi beharko naiz bertsoak idazten. Dena den, Ateraldiak, txiste modukoak, pasadizoak... asko dakizkit, beti gustatu izan zaizkit". Eta horiekin liburuxkaren bat egingo luke Jose Insaustik.

esaten ikaragarri ikusi nuen mutiko-mutikotatik, eta niri ematen zidan mina ikaragarria zen. Behin entzun nuen belarra gaizki ebakitzen nuen batzuei esan ziena: 'horrela belarra ebakitzea baino hobe dek bertsotan aritzea'. Beste bati ere entzun nion, 'Xenpelarkeri hori entzun egin behar da gero'..."

Txapelketak

1958an bertsolari gazteentzako txapelketak antolatzen hasi ziren Ordizian. Hirugarrenengoan, 1960an, animatu zen Jose Insausti oholtza gainera igotzen. "Ondo samar gosaldut gauen-edo, eta Albisu apaizak esan zigun joateko animatu gintuen, beti bertsotan ari ginela eta. 20 bertsolarik hartu genuen parte. 24 urte nituen. Aurren-aurreneko saioa hura izan zen. Nahikoa gustura gelditu nintzen, ezagutzen nituen gaiak egokitu zitzaizkidan eta".

1962an Euskal Herriko Bertsolari txapelketa antolatzen hasi ziren, bi urtean behin. Gipuzkoan 5 kanporaketa jokatzeko ziren, eskualdeka. Beasainen izan zen lehenengoan parte hartu zuen Insaustik. Lazkao Txikik irabazi zuen. Insaustik bigarren egin zuen. 1964an Insaustik irabazi zuen. Lazkao Txikik ez zuen parte hartu. 1966an ere bai.

Baina Jose Insaustik bazuen behar bezala kantatzen uzten ez zion arazo bat: zintzurke edo eztarriko arazoa. "Ahotsarekin izan dut arazo gogorra. Belarria ere txarra izan dut, kantatzeko neurri horretan. Fabrikari ere fundizioan lan egiten nuen. 1966 bukaeran Bilbon operatu nintzen. Itxaropen handia eman zidaten, ondo kantatuko nuela". Itxaropenak eta usteak, ustel gertatu ziren. "Asko sufritu nuen ahotsarekin. 12 urte kantatu gabe egon nintzen,

medikuek hala aholkatuta. Ahotsik gabe geldituko nintzela betirako, ez kantatzeko..."

Ixilaldiak 1985. urtera arte iraun zuen. Euskadi Irratiak antolatu zuen herri arteko Fernando Amezketa lehian parte hartu zuen Seguraren izenean, Pedro Etxezarretarekin eta Florentino Goibururekin batera. Gaur egun, eztarritik ondo omen dabil.

Garaiak aldatu dira

Bertsolaritzan ere ez da denbora alperrik pasatu. Hori bai, Insaustik San Joanetan beti ezagutu izan ditu bertsolariak Seguran. Basari eta Uztapide gehienez. "Gero neronek ere haiekin kantatu nuen, Basarrik utzi zuen bitartean. Orain ere dauden onenak izaten dira, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso".

Gainerakoan, bertsolaria bera eta entzulea ere asko aldatu omen dira. "Lehen umore gehiago zegoen. Parrea errazagoa egiten zen. Gaur beste bertso klase bat gustatzen dela pentsatzen dut. Entzulea ere asko aldatu da eta bertsolaria ere bai".

Beldurra ere bazegoela dio segurarrak. "Ikaragarriko beldurra zegoen bertsotarako. Politikan ez zegoen hitzik esaterik eta emakume kontuan ere, apaiz asko izaten zen eta askorik ez. Nik uste lehengo bertsolariek makina bat sufrituko zutela, gauza bat etorri burura eta esan gabe utzi behar. Bertso goseak ikaragarria zegoen".



ARRIKUTZ Tailerrak

Autoen konponketa orokorrak

Salmenta

Informazioa

Karnetik gabeko autoak

Tel.: 943 88 52 00

Nafarroa Etorbidea, 51

BEASAIN



San Pedro jaietako egitaraua

Ekainak 28, ostirala: San Pedro bezpera:

19:30etan: Txerriaren jaitiera, suziriak eta kanpai jotzea, aurtengo festei hasiera emateko.

20:00etan: Sagardo dastaketa mundiala, talo eta guzti. Andonegi eta Ostolaza trikitilariak alaiturik.

23:00etan: M-n Ezten eta Nekin taldeen eskutik dantzaldia.

Ekainak 29, larunbata: San Pedro eguna:

Eguerdi aldera, egunari hasiera emateko, poteo herrikoia egingo da.

14:00etan: Gazte bazkaria

17:00etan: Ume jolasak opari ugariarekin.

18:00etan: Segua apustua, herriko lau gazteren artean, Odio aldeko zelaietan. Bekotxe eta Xefe, Iparre eta Zabaloren aurka.

18:00etan: Bola lehiaketaren hasiera. Sariak: Egun bakoitzeko irabazlea (larunbat eta igandean), Irabazlea bi egunekoak batuta eta Herriko irabazlearentzat. Parte hartzeko epea arratsaldeko 7etan itxiko da.



Afariaren aurretik, ardo banaketa izango da herriko plazan.

20:15etan: Meza.

21:00etan: Herri afaria.

24:00etan: Dantza saioa Imuntzo eta Belokiren eskutik.

Ekainak 30, igandea:

9:00etan: Segurako Txistularien eskutik Goizeresia.

11:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Gabiriko Goruntz dantza taldearen saioa.

13:00etan: Toka lehiaketa.

Eguerdi partean: Elortza anaiak trikitilariak.

17:00etan: pilota partidak. 1. partida Yubero eta Oiarbide, Olaetxea eta Arrutiren aurka.

2. partida Domingez eta Baez, Erroizenea eta Argoterren aurka.

18:00etan: Bola lehiaketa. Izen ematea, 18:30 arte izango da.

18:30etan: Herri kirolak Zur-gai taldearen eskutik. Aizkoran, trontzan, korrikan eta bertikalean: J. M. Flores (Arbizu)/Xabier Mindegia (Labaien) eta Ernesto Ezpeleta "Bihurri"(Zaldibar)/J.M. Esnaola (Zegama). Aitzurrakin egurra moztzen: J.M. Flores, J.M. Esnaola eta Fernando Velez de Mendizabal. Harrijasotzailea: Ostolaza. Lasto altxatzen eta bakarka trontzan Fernando Velez de Mendizabal.

Eguna amaitzeko, Elortza trikitilaren eskutik erromeria.


Uztailak 6, larunbata: Errepetizio eguna:

18:00etan: Patata tortila lehiaketa.

Afaldu aurretik, ardo banaketa, tortilekin batera jateko.

21:00etan: afaria

Afaldu ondoren, dantzaldia Trakets taldearen eskutik.



Oharrak:

Afarirako txartelak herriko Ostatuan hartu behar dira aldez aurretik Telefonoa 943-801166


Tonbola izango da.

mazda
Bikar, S. A.



☎ 943 889 296 Faxe: 943 887 952

N-1 errepidea, 419 Kma **BEASAIN**



OSTATU

Jatetxea - Logelak

Festa onak pasa!

Tel.: 943 80 11 66 **MUTILOA**



MUJIKA
Jatetxea

- ✓ Menuak kartan
- ✓ Ezkontza eta janaldietan berezituak

☎ 943 80 15 07 - 943 80 16 99
Liernia Auzoa **MUTILOA**

Festa giroa nagusi

Ekainaren 28an, San Pedro bezperan hasiko dira aurten-gure jaiak, hala ere, aste-bete lehenago, San Joan bezperan, Euskal Herriko beste hainbat txoko, auzo eta herri-tan bezala, San Joan arbola jarriko da herriko plazan. Aldi berean baserri askotan eta herri erdian ere bai noski, San Joan suak piztuko dira.

Motorrak berotzen hasi eta hurrengo asteburuan, herriko jai nagusiei hasiera emango zaie eta ohi bezala txerria jait-siz hasiko dira. Apaiz etxetik irtingo da eta udaletxeko

balkoira jaitsi eta hantxe izango da jaiak amaitu bitar-tean. Une horretan kanpai hots, trikiti doinu eta altxa-fuego zaratarik ez da faltako.

Ondoren guztiok frontoira 26 sagardotegi desberdinetako sagardoa dastatu eta taloa txorixo mutur batekin jatera. Andonegi eta Ostolaza trikiti-lariak ere bertan izango dira giroa jartzen eta eguna behar den bezala amaitzeko dantzaldi bikaina M-n ezten eta Nekin taldeen eskutik, nekatu arte dantza egingeko.



San Pedro eguna da hurrengo eta hau ere ez da makala izango, egunari hasiera emateko poteo herrikoia egingo da. Herriko gazteek bazkaria egingo dute eta arratsaldeko lehen orduan ume-entzat jolasak.

Arratsalde partean bada ordea, urtetik urtera sona handiagoa lortzen ari den sega apustua; jolas baten moduan hasi zuten eta dagoeneko hirugarren aldiz egingo dute herriko lau gaztek norgehiagoka hau. Odio aldeko zelaietan egingo da eta iaz adinako ikuskizuna sortzea espero da. Txapela kentzeko moduko lana egiten dute lau gazte hauek, festetako egunik handienez horrelako ekintza bat eginez. Egun honetan herri afaria egingo da eta ondoren Imuntzo eta Belokiren es-

kutik dantzaldia.

Ekainaren 30ean berriz goiz partean dantza saioa Gabiriko Goruntz taldearen eskutik eta toka lehiaketa. Arratsaldean berriz herri kirolen txanda izango da, batetik pilota partida bikainak eta bestetik Zurgai taldearen eskutik aizkora, trontza, altxo altxazea e.a. ikusteko aukera paregabea izango da. Egun honetan musika Elortza anaiak trikitilarien eskutik etorriko da.

Baina ez da hor guztia amaitzen, iaz hasitako ohitura berriari eutsi nahian, aurten ere errepetizio eguna izango da uztailaren 6an. Arratsaldean patata tortila lehiaketa egingo da, afariarekin jarraitu eta bukatzeko neka-neka eginda bukatu arte dantzaldia Trakets taldearekin.

Iñaki Ugalde



Mutiloako Udala

MUTILOAKO SAN PEDRO JAIK

Urte osoan zehar hainbeste esperotako San Pedro Jaiak. Herritarroi jai zoriontsuak igarotzea opa dizuegu eta bertara hurbiltzen zaretenok disfruta ezazue herriak eskaintzen dizkizuen aukeraz. Denon artean giro jator eta alaia egin dezagula.

Aldi berean eskerrak eman nahi dizkiegu festak antolatzen parte hartu duten guztiei.

San Pedro jai zoriontsuak!



AUSO EGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✳ Tximini eta egurrezko ekonomiak
- ✳ Berogailuak
- ✳ Iturgintza
- ✳ Zeramika erakusketa
- ✳ Bainuko altzariak
- ✳ Erreforma osoak



Dioni Galparsoro garaile

Dioni Galparsoro, herritar-
rak, beste behin eskaini dio
Caja Rural bere taldeari po-
dium-aren mailarik garaiene-
ra igotzeko aukera, 3 ordu eta
23 minutu eta 40 segundota-
ko denbora eginez lehendabi-
ziko postua lortu baitzuen jo-
an den igandean. Denboraldi
bikaina egiten ari den ataun-
darra, beste 163 txirrindulari-
rekin batean aritu zen lehia
gogorrean. Izan ere, helmuga-
garatu ziren lehen hiru txi-
rrindulariak denbora berdine-
an amaitu zuten lasterketa.
Dioniren atzetik sartu ziren
Joseba Albizu (Cafes Baque)
eta Galparsororen taldekide
den Gorka Verdugo ere,
amaiera ikusgarrian. Aipatu
baita ere, hauen taldekide den
Mikel Gaztañaga. 8. postuan
helmugaratzea lortu eta 'Tar-
teko Helmuga' saria eskuratu
zuen.

Egun handia Caja Rura-
lentsat, dudarik gabe. Baina
berezi, Dioni eta bere sen-
diarentzat eta, noski, ataunda-
rrontzat orokorrean. Izan ere,
garaipenaz gain, mendiko sa-
ria ere Dioni Galparsorok es-
kuratu baitzuen.

Jubilatuaren bidaia Azagrara

Oraingoan Azagrara bidaia
antolatu du Atsedén-Toki el-
karteak, ekainaren 26an. Egu-
nean zehar, ordea, beste baz-
ter batzuk ikusteko aukera ere
izango duzue joaten zarete-
nok. Lezaungo gurutzean go-
saldu (bakoitzak berea era-
mateko eskatzen da, edariak
han bertan erostekotan) eta
Lodosako piper kooperatiba-
ra bisita. Hemendik Azagra-
ra, bertako Venecia Hostalean
izango delarik bazkaria. Baz-

kalostean opari zozketa egin-
go da. Etxeratu aurretik Liza-
rran geldialdia.

Egun eder bat pasatzeko
aukera hau aprobetxatu nahi
duzuenok, ekainaren 18, du-
zue azken eguna. Izen emate-
ko, berriz: San Martinen
Atsedén-Tokin; San Grego-
rion Juan Belokiri; Ergoiene-
an Maria Agiari; eta Aian
Maria Eskisabeli. Txartelaren
salneurria 24 eurokoa bazki-
de zaretenontzat eta 30 euro-
koa, bazkide ez zaretenon-
tzat.

Oier Zurutuza

Eusko Jaurlaritzako Hezkun-
tza, Unibertsitate eta Ikerketa
sailak, irakaskuntza ertaineta-
rako antolatzen duen Urruzu-
no saria eskuratu berri du
Oierrek. DBHko 3. eta 4.
mailakoen sailean, 'Gerra be-
ti da oinaze', 8 bertsoko bere
lana saritua izan baita.

Eskolarteko bertso txapelketan 4 herritar

Zumarragako Beloki pilotale-
kuan jokatu berri den Gipuz-
koako Eskolarteko Bertsolari
txapelketan, eta 14-18 urte
bitartekoen sailean, Aitzol
Munduate, Iban Urdangarin
eta Oier Zurutuza sarituak
izan ziren. Gaztetxoan mai-
lan, Mikel Dorronsorok, 'So-
beran daukazun erropa zaha-
rrak biltzen ari zara' gaiaren
inguruan idatzitako bertsoek,
aipamen berezia jaso zuten
Lehen Hezkuntzako 3. eta 4.
mailakoen sailean.

Labur-labur

Joan den astean zendu zen
Ergoienako Bittor Zeberio
Begiristain. Doluminak sen-
diari.



Santa Ixabel jaiak Aian

Ekainak 28, ostirala:

21:00etan: Auzo afaria Juanito Mendizabal txiste kontalariare-
kin.

24:00etan: Dantzaldia Muganix taldearekin goizaldera arte.

Ekainak 29, larunbata:

17:00etan. Bertso-pilota, herriko gaztetxoan eskutik: Zeberio-
Arratibel Goikoetxea-Albisuren aurka.

Ondoren: Afizionatuen pilota partida: Garmendia Zubizarreta-
re aurka. (Ataungo bertsolari gazteek partidan zehar bertsoekin
partidua alaiturik).

19:30ean: Sardina eta sagardo probaketa.

23:00etan: Amaia Zubiriarekin kantaldia, elizan.

24:30ean: M-n Ezten taldearekin dantzaldia, goizaldera arte.

Ekainak 30, igandea:

10:30ean: Meza Nagusia.

Ondoren: Eate abesbatza.

12:30ean: Txirrindulari proba: Kaxeta-Urkillaga.

17:30ean: XVII. dantzari txikien saioa.

Ondoren: Ataungo dantzari txikien saioa.

19:30ean: Herri kirolak: Aimar Irigoien harrijasotzaile gaztea-
ren erakustaldia.

Gauean: Agautz trikitilari taldearekin dantzaldia, goizaldera
arte.

Uztailak 1, astelehena: haurren eguna:

17:00etan: Poxpolo eta Mokolo pailazoak.

Ondoren: Ume jolasak, txokolate janarekin amaiera emanaz.

Gauean: Gazte afaria Ataungo bertsolari gazteekin.

Ondoren: Rock kontzertua.

Jose A. Agirrerri omenaldia Aian

Jose A. Agirre Arratibel omendu zuten joan den igandean Aian.
Mutikotatik hasi eta, ia bizi osoa Aiako Santa Ixabel parrokiako
sakristau lanari eskaini izana eskertu nahi izan zioten auzota-
rrek eta Ataungo herriak. Meza nagusiaren ondoren, Haitzarri
elkartean bildurik eskaini nahi izan zioten guztien esker ona Ja-
bier Zubizarreta erretoreak, Pedro Aldasoro auzotarrak eta San-
ti Etxeberria zinegotziak, Ataungo udalaren izenean, oroigarri
bana emanaz. Ekitaldiari amaiera, Haitzarri elkartearen ospatu
bazkariarekin eman zitzaion.

Agurtzane Bikuña

San Joan eta San Pedro jaiak

Ekainari jai giroan emango diogu amaiera. San Joan egunaren inguruan izango da ospakizunik gure herrian. Ilunabarrean emango zaio hasiera, txistulariak Barrendain plaza-
ra igoko dira, bertan kokatuko baita festaren erdigunea. Ondoren etxafuego jaurtiketa izango da eta jarraian bertso saioa entzuteko aukera ere izango da. Suaren inguruan, Ostadar dantza taldekoek zortzikoa eskainiko dute eta egunari amaiera goizaldera arte luzatuko den dantzaldiak emango dio.

San Pedro jaiak Arriaran eta Ezkiaga auzoetan

San Pedro egunaren inguruan ospakizun desberdinak izango dira Arriaran eta Ezkiaga auzoetan.

Arriarani dagokionean,

ekainaren 29an eguerdiko 12,30etan ospatuko den Meza Nagusiarekin emango diote hasiera aurtengo jaiak. Meza-
ren ondoren, omenaldi berezia egingo zaio bertako bizilagun zaharrenari. Jarraian, herri-bazkaria egingo dute eta bertan izango dira bertsolariak eta trikitilariak giroa alaitzen. Arratsaldean, mus txapelketa eta trikitilari doinurik ere ez da faltako.

Ezkiaga auzoan berriz, San Pedro bezperarako antolatuko dute jaiak. Hortzmuga antzerki taldearen 'Galaxy' lana ikusteko aukera izango da 18:00etan. Sardina eta txistorra jana ere egingo da 20:00ak inguruan. Sua piztuko dute 22:30ean eta ospakizunei amaiera, jarraian izango den Basajaun taldearen dantzaldiak emango dio.

Nekane Altuna

Ikasturte amaierako emankizunak

Ekainaren 23an, eguerdiko 12etan Baleta ikusteko aukera izango da Usurbe Antzokian Gala Nietoren ballet eskolako enskutik. Mari Errauskin ipuin aski ezaguna oinarri hartuta koreografia bat osatu du Gala Nietok eta koreografia hau izango da beste batzuen artean, Galaren eskolako ikasleek eskainiko dutena ikasturte amaierako ballet ikuskizunean. 5 urteko haurrek, Charleston motako dantzak egingo dituzte. Ondoren 8-9 urteko ikasleek Nureyev eta beste dantzari ezagunen koreografiak egingo dituzte. Tangoa ikusteko aukera ere izango da.

Errail antzerki taldea

Errail Antzerki taldekoek ere ikasturte amaierako beren lana aurkeztuko dute ekainaren 28an. Arratsaldeko 8,15etan izango da Usurbe Antzokian aurkezpen hau. Familia barruko harremanen gaia hartuta 5 sketch edo historia labur aukeratu dute. Asier Murua, Maitane Murua, Aitziber Garmendia, Estitxu Matias eta Nekane Reta dira antzezpen honetan parte hartzen dutenak.

UEUrako diru laguntzak

Beasaingo Udaleko Euskara-batzordeak, 2002ko XXX. UEUko edizioan uztailaren izango diren ikastaroetarako diru-laguntzak eskaintzen ditu ikasle euskaldun beasaindarrentzat. Ikasleek ondorengo baldintzak bete behar dituzte: 1. Beasainen erroldatuta egotea. 2. Batxilergoko 2. ikasturtea edo LH1-2 eginda izatea edo Unibertsitateko Maila Ertain edo Goi-mailako ikasketak egiten aritea, edota UEUra gai bereziak lantzerako joatea (ikasketak egiten ari direnek matrikularen kopia ekarri behar dute). 3. Eskakerak 2002ko uztailaren 12ra bitartean egin behar dira.

Eskakerak egitean, honako agiri hauek ekarri behar dira: 1. UEUko ikastarorako egindako matrikularen fotokopia. 2. Naren fotokopia. 3. Diruetxeren bateko kontuaren zenbakia. 4. Udaletxean emango zaien eskaera-orria beteta. 5. Egiten ari diren ikasketen matrikularen fotokopia. Baldintzak betetz gero, laguntzak, kostuaren 2/3koak izango dira.

Eskakerak, Udaletxeko Harrera-bulegoan edota Euskara-zerbitzuan entregatu behar dira. Informazio gehiago telefono honetan: 943 02 80 63.

Informatika arloko laguntzak

Udaleko Euskara-batzordeak, 2000. urtean hasitako bidea jarraituz, informatika-arloan erabilera sustatzeko, ondorengo laguntzak eskaintzen ditu:

● **Informatikako euskarazko programa-erostunei:** 2002. urte honen barruan, informatikako euskarazko programak erosten dituztenei diru-laguntzak emango dizkie Udalak. Horretarako, Beasainen erroldatuta egon behar da. Laguntza: 10.000 pezeta. Eroslekuan egindako deskontu moduan gauzatuko da. Hornikuntza euskaraz egiteko hitzarmena sinatutako saltzaileak, Goisystem, Chip's eta Montte dira.

● **Web orriak euskaraz:** Web-orriak diseinatzean, euskarazko bertsioak ere egiten dituzten Beasaingo enpresa, merkataria edo erakundeei, 10.000 pezetako laguntza emango zaie. Horretarako ezinbesteko baldintza izango da hizkuntza-arloan ongi idatzita egotea eta euskarazko bertsioak bere sarrera izatea.

● **Kontabilitate eta gisako aplikazioak:** Kontabilitateko, gestioiko eta gisako euskarazko aplikazioak erosten dituzten Beasaingo enpresa, merkataria edo erakundeei, 10.000 pezetako laguntza emango zaie.



Urrezko ezteiak

Jesus Insausti eta Martxeli Garmendiak urrezko ezteiak beteko dituzte ekainaren 26an. Larunbatean, 29an, egingo dute ospakizuna. Familiakoek, zorionak eta urte askotarako opa nahi die lerro hauen bidez.

Elkartasuna San Benito ikastolan

Safiya Hussaini nigeriar emakumearen kasua entzuna izan da azkenaldian. Hedabideetan harriz hil nahi zuten emakume honen istorioa behin baino gehiagotan entzun dugu. Oihartzuna San Benito ikastolara ere iritsi da. Bertako ikasleek, Amnesty International erakundeak planteatutako ekimenarekin bat egin da, heriotz zigorraren aurka ko sinadura bilketa egin dute, eta modu arrakastatsuan gainera.

Afganistango gerrak ere ia telebistako gudua izan dela esan dezakegu. Egunero-egunero, izan ditugu bertako irudiak, han gertatutako erasoen kontakizunak,... eta gerra amaitutakoan bertan izanda-

ko mixeriak. Guztiak kontatu dizkigute zuzenean bertatik. Eta Afganistango gerrateak utzitakoen artean, Afganistandik alde eginda Pakistanen errefuxiatu diren emakume eta haurrak. Hauei laguntzeko diru bilketa ere antolatu du aurten San Benito ikastolak ikasleen artean. Bildutako dirua, 250 euro, Pakistanen dauden errefuxiatuei eta Brasilgo indigenei bidaliko zaie 'Survival' eta 'Ayuda en acción' gobernuz kanpoko erakundeen bitartez. Elkartasuna eta konpromisoa; bi balore hauek erakutsi dituzte zalan-tzarik gabe aurtengoan San Benito ikastolako ikasleek.

Oihana Sarasola



San Joan bezperako sua

Urtero bezala ekainaren 23an San Joan bezperako sua piztuko dagaueko 10.30etan, txaranga eta dantzariak alaiturik.

XXVIII. Udako Euskal Ikastaroko ekitaldiak

Uztailak

Uztailak 2, asteartea

Kale-zinema: 4 laburmetraia: 'Aitaguria' (Jon Andueza), 'Txotx' (Kixi), '40 Ezetz' (Kixi), 'Gorabehera' (Idoia Astigarraga eta Andone Esparza). Euskadi plazan, 22:00etan.



Uztailak 4, osteguna

Antzerkia: 'Hau parade-roa'. Antzesleak: Aizpea Goenaga, Elena Irureta, Loli Astoreka eta Eli Elizondo. Maizpide euskaltegiko zinema-aretoan, 21:00etan.

Uztailak 9, asteartea

Bertso-jaialdia: Goierriko bertsolari gazteak. Euskadi plazan, 22:00etan.

Uztailak 11, osteguna

Anje Duhalderen emanaldia. Euskadi plazan, 22:00etan.

Uztailak 16, asteartea

Txan magoa. Euskadi plazan, 21:00etan.

Uztailak 17, asteazkena

Koldo Ameztoi ipuin-kontalaria. Euskadi plazan, 22:00etan.

Uztailak 18, osteguna

Drindots musika-taldea. Euskadi plazan, 22:00etan

Abuztua

Abuztuak 6, asteartea

Bertso-tra-

ma: Bertsolariak: Maialen Lujanbio, J.M.Irazu, Nerea Elustondo eta Aitor Sarriegi. Tramagilea: Unai Elizasu. Maizpideko zinema-aretoan, 21:00etan.



Abuztuak 21, asteazkena

Koldo Ameztoi ipuin-kontalaria. Maizpideko zinema-aretoan, 21:00etan.

Abuztuak 27, asteartea

Ikusentzunezkoa: 'Munduari itzulua 17 urtez, belauntzian eta familiarekin', Santiago Gonzalez. Maizpideko zinema-aretoan, 21:00etan.

Abuztuak 28, asteazkena

Kale-zinema: 'Mothman: Azken profezia' (AEB, 2001), Zuzendaria: Mark Pellington. Aktoreak: Richard Gere, Laura Linney, Will Patton. Euskadi enparrantzan, 22:00etan.

Abuztuak 29, osteguna

Joseba Iparragirre eta Ander San Jose trikitilariak. Maizpideko jangelan, 21:00etan.

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

☎ 943 88 51 68

ORMAIZTEGI

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak filtroak, olioak, engrasea frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57

Garagardo festa

Azken bi urteotako arrakasta itzela kontuan hartuta, beste hainbeste espero dute errugbi taldekoek aurtengo ediziorako. Ekainaren 27tik 30era birtartean ospatuko da garagardo festa Beti Alai pilotalekuan eta horretarako errugbi-koek egitarau borobila prestatu dute. Ez dira faltako ohiko txerri ukondoak, saltxitxak eta mota guztietako garagardoak. Zuriak, beltzak, tostatuak, rubiak, alkoholik gabekoak... denak dastatzeko aukera izango da errugbi taldeen alde hilabete amaieran. Aurtengoan sorpresa bereziak izango dira gainera, antolatzailleen esanetan festa girotzeko kantaldiak eta abar ez omen direlako faltako.

Txindoki A.T.

Kirol kontuekin jarraituz atletismoari dagokio txanda oraingoan. Hemen aipatzekoak dira Jose Antonio Blanco 'Txuri'k, behin lesioa alde batera utzita, eskuratutako

postu eta markak. Maiatzaren 1ean Andoainen jokaturako kros herrikoian lehen postua eskuratu zuen "Txuri"k eta irabazi ez baina 16garren postua lortu zuen hil bereko 16an Donostian jokaturako maratoi erdian (1h11'18"). Proba berean Amaia Insausti ere marka ona egin eta laugarren sailkatu zen.

Zumarragan ere Jose Javier Cuadrado 'Karratu'k garaipena erdietsi zuen maiatzaren 18an jokatu zen krolean. Baina, fondoko korrikalariet gain, txanda motzetan ere neurri ona ematen ari dira Txindoki Atletismo Taldekoak. Aipatzekoak Eñaut Gereñu, Adur Ugartemendia, Gorka Satrustegi (800 metrotan bere marka onduta), Irantzu Egiguren, Eneko Barandiaran (5.425 puntu declathon proban) eta beste hainbat atleta gaztek maiatzean Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketetan lortutako postu eta marka bikainak.

Otegi-enea eta Majoriko jaiak

Udan sartzearekin batera Otegienea eta Majoriko jaiak gozatze-ko aukera izango dugu. Hona hemen auzotarrek prestatu duten egitaraua:

Ekainak 21, ostirala: 18:00etan txupinazoa, **19:00etan** auzoko jubilatuen arteko toka txapelketa eta **22:30ean** "Buena Onda" taldearekin dantzaldia.

Ekainak 22, larunbata: 10:30ean 14 urtetik beherakoentzat krossa, **11:30ean** umeentzat marrazketa ekitaldia, **12:30ean** haur jolasak, **16:30ean** toka txapelketa, **17:00etan** arku-tiroa, **18:00etan** euskal dantzak, **22:30ean** "Buena Onda" taldearekin dantzaldia eta **23:30ean** mozzorro lehiaketa.

Ekainak 23, igandea: 10:30ean Extremadurako ohiko artikuluen erakusketa, **11:30ean** "Potxin eta Patxin" pailazoak, **12:30ean** Santa Ana abesbatzaren kantaldia, **13:30ean** Laguntasuna Errondalla, **16:30ean** "Gorriti" eta bere abereak, **19:00etan** sardina jatea, **20:00etan** trikitixa eta amaitzeko **21:30ean** ohiko San Joan sua.



Jubenilak bigarren

Errugbi kontuekin jarraituz ezin aipatu gabe utzi jubenilek espainiar estatuko txapelketetan erakutsitako maila onaren ondoren lortutako bigarren postua. Ilusio handiz joan ziren Valentzia aldera maiatza hasieran denboraldi bikaina burutu ondoren. Bertan, ordean, partida bateko epailea izan zen etsairik handiena eta horrek eragotzi zien txapelketa ez berenganatzea. La Moraleja talde madrildarra izan zen lehen arerioa eta ondo kostata baina 5-3ko emaitzaz nagusitu ziren ordiziarrak. Hurrengo neurketa Tatami talde valentziarraren aurka. Hemen etorri ziren ordiziarraren haserreak. Baina azkenik epailea berearekin atera eta etxekoek 5-3ko aldeko emaitza lortu zuten. Hirugarren neurketa L'Hospitalet talde kataluniarraren aurkakoa izan zen eta hemen ordiziarrak gazteek euren benetako maila erakutsi eta 31-5eko aldeko emaitza eskuratu zuten. Esan bezala bikain, baina bigarren.

San Joan sua

Otegienea bakarrik ez, gainontzeko auzoetan ere piztuko da sua. Baina handiena Garagartza Plazan piztuko da aurtengoan ere. Bertan, azken asteotan entseguak burutu ondoren, hainbat herritarrek dantza egingo dute suaren inguruan garai bateko ohiturak gogoratu asmoz. Kanta, oihi eta biraoak ez dira faltako gau hain seinalatuan.

Kirol ekintzak Majorin

Hona hemen udan kirola egin nahi duen ororentzat Majorik proposaturako ekintzen zerrenda: arku-tiroa, tenisa, squash-a, badminton, eskalada, piraguismoa, hipika, urazpikoak, mountain-bike, igeriketa, xakea, espeleologia eta arroilen zeharreko jaitsiera. Interesatuok 943-889333 telefono zenbakira deitu besterik ez duzue.

Euskara ikastaroak

AEK-k zabaldu du jada udan euskara ikasi nahi dutenentzat matrikula epea. Maila guztiak eskaini dira, baita alfabetatze eta EGA ere. Interesatuta bazaude deitu 943-889174a telefono zenbakira. Jakin Udalak diruz lagunduko dizula ikastaroa.

Eugenio etxera

Aspaldidanik etxean behar zuen Eugenio Irastorzak. Denaren, 22 urte kartzelan pasatzea gutxi dela iruditzen zaie batzuei sobrare eta gati-bu darrai oraindik ere. Eugenio Etxera Plataformak hau salatu asmoz ekitaldia antolatu zuen ekainaren 16an eta bertan atxikimendua adierazi zuten herri ekimenek lekukoa eramane zuten herriko kaleetan barna. Ekitaldian jende ugari parte hartu zuen.

Aitor Calvillo

San Joan bezpera

Uda iristearekin batera San Joanak ere iristen dira bere inguruan dituen ohitura, festa eta tradizio denak berriro eta asmo txarrak sutan erretzeko garaia.

Herri guztietan edo gehienetan bezala Zerainen ere festa giroan ospatu ohi da San Joan bezperako gaua, aurtengoan ere gaueko 9etan arbola zutitzearekin batera sua piztuko da eta bere inguruan ez da faltako soinu, kanta eta dantzarik. Janik eta edaririk ere ez da faltako bertara hurbiltzen den edonorentzat.

Bolatea

Aurreko asteburuan, Bola txapelketetan emaitza bikainak izan zituzten, zeraindarrak. Hilaren 7an Usurbilen jokatu zen Lehendakari Txapelketan lehen postua Zeraingo Luis Aizpeoleak lortu zuen, bigarren Hernaniko Luis Miner eta hirugarren Antonio Alustiza, hau ere zeraindarra.

Hilaren 8an Herreran izan zen Euskadiko Txapelketan irabazle Altzako Antonio Gonenaga izan zen eta bigarren Zeraingo Luis Aizpeolea, biak 68 puntutara berdindu eta desenpatea jokatu ondoren.



Eskola txikien festa

Ekainaren 9an, Ereñozun, ospatu zen Eskola txikien festa. Festa hau eskola txikiek dituzten herrietan ospatzen da urtez urte herriz aldatuz, datorren urtean Asteasun ospatuko da.

Urtero bezala, Zeraingo eskola txikiko haurrek ere parte hartu zuten bertan, aurtengoan Zapatalari abestia kantatu eta dantzatzuz. Giro ederrean joan zen eguna, eta haurrek oso ondo pasatu zuten.

Mari Flor Mendizabal

Santa Lutzi Anduaga auzoan Sanpedroak

Ekainak 28, ostirala:

19:00etan: Futbol Partidua, ezkonduak ezkondu-gabeen aurka.

21:30ean: Afaria Anduaga Elkarteak. (Izena emateko deitu Udaletxera, 943-721303, ekainaren 25-a baino lehen).

Ekainak 29, larunbata: San Pedro eguna:

10:00etan: Txistularien kalejira.

11:00tan: Meza Nagusia.

Ondoren: Gabiriako Goruntz Dantza Taldearen eskutik dantza saioa.

Gero: Hamaiketako Andua-

ga Elkarteak.

16:30ean: Ume jolasak.

Ondoren: txokolate jana.

19:00etan: Toka txapelketa.

21:00etan: Herri afaria (Izena emateko deitu Udaletxera, 943-721303, ekainaren 25-a baino lehen).

Ondoren: Erromeria Santa Lutziako Plazan.

Ekainak 30, igandea:

11:30etik 12:00etara: Patata Tortilen I. lehiaketa.

Oharra: Patata tortilen lehiaketan parte hartu nahi dutenek etxetik 2 patata tortila ekarri beharko dituzte eta An-

duaga Elkarteak utzi goizeko 11,30etatik 12ak bitartean. Patata tortila bat epaileentzat izango da eta bestea dastaketarako erabiliko da.

12:00etan: Meza.

Ondoren: Patata Tortilen dastaketa eta sari banaketa.

17:00etan: Mus azkarra Anduaga Elkarteak.

Uztailak 7, Igandea:

16:30ean: Junior Mailako Txirrindulari proba.

19:30ean: Sardin jana.

Oharra: egun honetan puzgarriak egongo dira goiz nahiz arratsaldean.



Kirolean bikain

Aurtengo ikasturtean, Zaldibiako ikasleak eta Zaldibiako taldearen izenean aritu direnak (DBH ikasleak) ikasturtean zehar kirol ezberdinak landu dituzte: areto futbola, saskibaloia, pilota, atletismoa, igeriketa, herri kirolak... Parte hartzea oso ona izan da eta herriko taldeek lortu dituzten emaitzak ere oso onak izan dira:

Parte hartzea

Benjamin maila: 3. eta 4. mailako neskak eta mutilak: 19.

Alebin maila: 5. eta 6. mailako neskak eta mutilak: 19.

Infantil maila: DBHko 1. eta

2. mailako neskak eta mutilak. Ordizian ikasten ari dira, baina Zaldibia ordezkatzuz jokatuko dute: 18.

Emaitzak

Eskola Kirola Txapelketa: Goierri eta Gipuzkoako Txapelketa:

Saskibaloian, Alebin neskak: Goierriko Txapeldunak. Gipuzkoako Txapelketan Donostian jokatu zen finalerdian galdu zuten Loiola eskolaren aurka.

Areto Futbola:

Alebin neskak: Goierriko Txapelketa finala Urdaneta eskolaren aurka galdu zuten.

Alebin mutilak: Goierriko Txapelketako finala galdu zu-

Laburrean

● **Ama Lurraren defentsan erakusketa:** Ekainaren 17tik 21era, arratsaldean Kultur Etxean. Gaia: Ingurumen arloan dauden arazoak.

● **Ikasturte amaierako festa:** Ekainaren 21ean, 14:30ean, Antzokian.

● **Ondo esan beharko antzerkia:** Ekainaren 21ean, gaueko 22.30ean, Antzokian. Ramon Agirre eta Joserra Senperenak prestaturiko antzezlanak izan da.

● **Taila eta pintura ikastaroetako erakusketa:** Ekainaren 24tik 28ra arratsaldean Kultur Etxean.

● **Musika Eskola eta Txarangako ikasleen musika emanaldia:** Ekainaren 27an, arratsaldean, Antzokian.

Alamartxo Gava

Hauxe da aurtengo San Joan bezperan izango dugun egitaraua:

19:00etan: Herriko txarangarekin kalejira.

19:30ean: Ardo barrika zabalduko da plazan.

21:00etan: Herri Afaria plazan, Zubi Buru elkarteak antolatuta.

22.30ean: Dantza, musika, txalapartariak, bertsolariak, soinu-joleak eta pandero-joleak.

Sua piztu ondoren, Koldo Zubeldiaren diapositiba emanaldia
Oharrak:

1. Plazan jartzen den sua ikuskizuneko partaideek piztuko dute, beraz, ez dezala inork piztu.

2. Gaueko ikuskizunean bakoitzak bere haurraren ardura hartzea eskatzen da.

Larraitza irteera

Ekainaren 29an, San Pedro egunean, Beti Gazte elkarteak Larraitza irteera antolatu du. Goizeko 11etan abiatuko da autobusa Zaldibiako plazatik. Txartelak ekainaren 16tik aurrera egongo dira salgai.

Udan ez da aspertzeko betarik

Haurren jarduerak: uztailaren 1tik 23ra. Matrikula: 10 euro.

Gaztetxoaren jarduerak: uztailaren. Matrikula: 10 euro

Aerobic: uztailaren, astean hiru egun. Matrikula: 18 euro

Piraguismoa: uztailaren 8tik 13ra. Matrikula: 10 euro

Tenisa: uztailaren edo irailaren hasieran. Matrikula. Haurrek 10 euro eta helduek 17.

Hipika: ekainaren 25etik uztailaren 5a arte. 10 orduko ikastaroa. Haurrek 18 euro eta helduek 30.

Matrikula izena emateko garaian ordaindu beharko da Kultur Etxean.

ten Legorretako Ugaro eskolaren aurka.

Infantil neskak: Goierriko Txapelketa irabazi zuten. Gipuzkoako Txapelketa Laskurain ikastolaren aurka galdu zuten.

Infantil mutilak: Goierriko eta Gipuzkoako Txapeldunak. EAEko jokoetan parte hartu dute Gasteizen eta irabazle atera ziren. Egun hauetan, Badajozen jokatzen ari den Espainiako Txapelketan parte hartzen ari dira.

Eskola Kirola Txapelketa. Goierriko Udaberriko Txapelketa: Saskibaloian, Alebin neskak: Goierriko txapeldunak.


Areto Futbola:

Alebin mutilak: Goierriko txapeldunak

Infantil neskak: Goierriko txapeldunak

Beraz, lerro hauetatik Zaldibiako neska-mutilak zorian nahi ditugu aurtengo egindako denboraldi txukunagatik, eta zer esanik ez lanean aritu diren monitore guztiak (Agirre, Iñaki Azketa, Jose Luis Zeberio, Eneko Ganzarain, Iñaki Irastorza, Ion Ordozgoiti, Aitor Garmendia, Gotzon Atxotegi, Julen Marijuan, Roman Mendi-zabal, Eñaut Telleria...)

Iñaki Gurrutxaga
Saroï Jauregi



Mikel Telleria "Zaldiak hartuta"

Mikel Telleriak aste honetan aurkeztu du bere bigarren disko. 'Zaldiak hartuta' izeneko bilduman 9 kanta bildu ditu idiazabaldarrak. Berak konposatutako kantak dira gehienak. Rocka, baina tartean bi kantu lasai ere baditu lan honek.

'Zaldiak hartuta' diskoak aldaketa dakar idiazabaldarrak orain arte jorratutako estiloan. "Egiteko beste era bat landu dut, diskoan rocka nik ulertzen dudan moduan aurkituko duzue", dio Telleriak. Hitza eta musika, abesti batean izan ezik, berak egindakoak dira.

Bilduma otsailean eta martxoan, asteburuetan grabatu zuten Bizkaiko Urdulizen dagoen 'Tio pete' estu-

dioetan. Aurretik grabatutako diskoak, bidea erraztu egin dio lan horretan "esperientziak asko lagundu digu, lasaiago joan ginen eta nola lan egin behar genuen bagenekien". Zazpi musikari aritu ziren estudioko grabazio egiten. 2 gitarra, baxua, bateria, 2 teklatu eta saxoa izan ditu lagun Telleriak. Produktzioan beste herritar bat aritu da Alberto 'Intxa'.

Diskoaren izenaz, Mikelek dio, "zaldiak mitologian duen esanahiari heldu nahi izan diogu. Zaldiak nobleziaren eta ederraren sinboloa irudikatzen du, eta hori erreibindikatzen dut disko hone-tan". Azalean ere zaldiak daude.

Hemendik aurrera, zuzene-

'Zuberoa garatzen' jaialdia

Gaur, ekainak 21, gaueko 10,30etan, Igarondo pilotalekuan, 'Zuberoa garatzen' kanpainaren aldeko jaialdia izango da. Herriko artistek osatuko dute jaialdia:

Juan Ramon Gerriko, Miel Imaz eta Alaitz Alustiza bertso-lariak; herriko txistulari taldea; herriko haurren dantza taldea; Herri Eskolako haurrak kantari; Ainhoa Munduate, Olatz Nograrro, Dani Oiarbide eta Joseba Iparragirre trikitilariak; eta Jo-ne Aierbe eta Estibalitz Katarain soinu-joleak arituko dira. Xabier Urteagak egingo ditu aurkezpen lanak.

neko emanaldiei helduko die idiazabaldarrak. Lehenengo diskoarekin 40 emanaldi egin dituzte eta Mikelek gustuko du zuzenean aritzea, "horrek badu bere xarma, eta neroni hobeto sentitzen naiz zuzene-koetan".

Bigarrena kaleratu berri-tan, Mikelek hirugarren diskoan ditu begiak jarrita. Begiak bakarriak ez, burua ere bai. Dagoeneko bilduma har-tarako abestiak egiten ari da.

Xabier Urteaga

Musika Eskola

Udalak, Ordiziako Musika Eskolaren proposamena jaso du datorren ikasturtean, herrian, musika ikasketak emateko. Musika-karen inguruko gaiak sakondu eta musika tresnak jotzen ikas-teko aukera izango da. Udalak proposamena aztertzen ari da.

San Joanak

Urterokoa izaten da, ekainaren 23an suaren bueltan egiten den festa. Aurten, iaz bezala plazan egingo da sua. Gaueko 10etan piztuko dute eta ondoren haren inguruko jaia hasiko da. Gazte Asanbladakoak ari dira guztia antolatzen.

Uda kanpaina

Udalak eta Kiroldegiak, uztailerako kirol eskaintza prestatu dute. Helduak, patinak, uretako soinketa, softbola eta igeriketa dituzte aukeran. Izena uztailaren bata baino lehen eman behar dute. Haurrek, jokoak, eskulanak eta kirola, guztia nahasian egin ditzakete. Hauek ekainaren 24rako eman behar dute izena. Informazio gehiago, kiroldegian.

Zuzen taldearen hitzaldia

Ekainaren 27an, 19:30ean, Pilar Enean, Zuzen Ekintza Taldearen hitzaldi eta bideo emanaldia izango da. Besteak beste, euskararen ofizialtasuna, autodeterminazioa eta Euskal Preso-ak Euskal Herrira izango dira landuko diren gaiak.

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordue: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN



GESTORIA Biok

**Errenta
aitorpenak
egiten dira**

**Goierri, 12
behea
ORDIZIA**

943 88 44 00
943 88 12 58

San Joan ospakizunak

Aurten ere iristear dugu San Joan eguna, hori dela eta ohi-ko ospakizunak izango ditugure herrian.

Aurten San Joan bezpera igandea denez eta beste hainbat ekitaldi ere ospatzekoak direnez, tantaia jartzea eguerdian egingo da. Hau da ekainak 23 igandea, eguerdiko

13:00etatik aurrera herrigunean tantaia altxatzea burutuko da, herriko trikitilariak alaituriko giroa izango delarik.

Iluntzean berriz 21:00etatik aurrera buruhaundiak herriko enparantzan.

22:00etatik aurrera, herriko haurrak prestatzen aritu

izan diren San Joan suaren piztea burutuko da; Hondarribiako txalapartariak taldeko Eli eta Jaione txalapartari eta herriko trikitilariak alaituriko doinuak izango delarik.

Txindata musika eskolako ikasleen kontzertua

Txindata musika eskolako ikasleek ikasturte amaieran egin ohi duten bezala aurten ere kontzertua eskaini zuten, atzo, ekainaren 20an. Kontzertu honen bitartez ikasturte osoan eginiko lanaren emaitza bikainak gertutik ezagutzeko aukera eskaini zigten.

Aitziber Murua

Itsasondo

Herri Eskolak festa

Ekainaren 22an, larunbatean, herri eskolako haurrek ikastaroari amaiera emateko festa antolatu dute herritar guztiontzat. Gaztetxoekin batera parte hartu nahi baduzue, hona hemen egitaraua:

16:00etan: Haur nahiz gurasoek eginiko eskulanean erakusketa. Gelaz gela ikusi ahal izango dira urtean zehar egin dituzten lanak. Jarraian, haurrek, dantzak, abestiak... es-

kainiko dizkigute eskolan bertan.

Ondoren: Merienda, frontoiko plazan.

18:00etan: Mokolo eta Poxpolo pailazoak frontoian.

Jarraian: Jolasak haur guztientzat.

San Joan bezpera

Iluntzetik hasita musikaz alaiturik egongo da Errota frontoiko plaza. Sardina eta txorixoa dastatzeko aukera ere izango duzue, sua piztu bitartean plazaraino inguratzen zaretenok. Nahikoa jan eta edan ondoren, 22:00etan emango zaio haisera suari.

Akziozko zinea

Hilabete honetan Bide On-ek akziozko zineaz gozatzeko aukera eskaintzen digu. Ertoetxen, ostiralero, gaueko 10etan, izaten dugu zita:

Ekainak 21: John Schlesingerren 'Marathon man' filma.

Ekainak 28: Roberto Clousen 'Bruce Lee. Operacion Dragon'.

Edurne Ayuso- Leire Telleria



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
 ☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
 ZALDIBIA BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
 ☎ 943 88 87 02
BEASAIN

berriz aranburu

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

Udaren suzko hasiera

San Joan ingurua izan ohi da udaren etorrera ospatzeko garaia, urteko egunik luzeenetan gauden hauxe, alegia. Batzuk oporrak hartuta, besteak udako egunetan pentsatzen jarrita, giro berezia ekartzen du ekainaren bukaerak, mitologiako ukitua emateaz gain. Hori guztia borobiltzeko zenbait ekitaldi antolatu ditu Udaleko kultura eta festa batzardeak.

San Joan bezperako igandeak bilduko ditu ikuskizunak, ekainaren 23ak. Honela, arratsalderako Ramon Agirre aktore ezagunaren emanaldia dago hitzartuta. Ondo esan beharko lana emango du, komedia moduko ikuskizun bat

da, ipuinak, musika eta pasarte-kontakizunak uztartzen dituen, betiere umorez zipriztinduak eta Joserra Senperena pianojolea lagun duela. Antzerki-kantaldi gisako hau elizako antzokian eskainiko da, arratsaldeko 5:30etan hasita.

Eta egunari omen egiteko arrats-beheran San Joan sua piztuko da, ilun sentian, 10ak aldera. Aurten berrikuntza bezala herriko dantza taldekoek aukerarako ezin hobeto datorren Sorgin dantza egingo dute, besteak beste. Ingaratzen diren guztiei ere zabalduko zaie dantzarako gonbitea, Udalak banatzen duen ardo goxoak lagundurik.

Murua bertso finalean

Murua aitak ez, semeak hartu du erreleboa oraingoan final batean. Gipuzkoako eskolarteko bertso finalerako txartela lortu zuen aurretik jokaturako kanporaketetan, eta aurreko ostiralean, ekainaren 7an, Zumarragako frontoian kantatu zuen batbatean, nagusien sailean eta beste zazpi bertsolari gaztetxorekin. Ataungo bertso eskolan dabil 17 urteko Jokin. Euskal Herriko final nagusira pasatzea ez zuen lortu, lehenengo biek bakarrik duten eskubidea baita hori, baina esperientziarekin gustura eta pozik geratu da mutila. Datorren urteko aukerari zain-zain jarrita dago jada.

Labur-labur

● **Pilotalekuan** burutzen ari diren **egokitze lanak** direla eta uztailaren 1era arte ezin izango da kantxa erabili. Horrek berde argiz margotuko dituzte eta teiltatuko burdinezko egiturari erdoilaren kontrako tratamendua emango zaio, bide batez.

● Herri eskolako ikasleek ekainaren 9an Ereñotzun ospatu zen **Eskola Txikiaren Egunean** parte hartu zuten, egun osoko festan. Kurtso

bukaerako bidaiatxoak ere eginak dira: umeek Pasaian igaro dituzte bi egun, eta gurasoekin batera igande-pasa ere antolatu zuten.

● Urtero egin ohi den **emakumeen bazkaria** lehengo ekainaren 9an egin zuten Korta jatetxean.

● **Andramari jaiak** prestatzen hasteko garaia heldu dela eta, dagoeneko bilerak egin dira. Hurrengoa uztail partean da.

Aimar Maiz

San Joan bezpera

Aurten igandean, ekainak 23, izango da suaren inguruan jai egiteko eguna. Hauxe da, San Joan bezperarako prestatu den egitaraua.

Arratsaldeko 8etan, Udalak ardoa eskainiko du bertara hurbiltzen den ororentzat.

Une berean, Erromeria "Eneritz eta Naiara" trikitilarien eskutik.

Gaueko 9etan, San Joan Sua piztuko da.

Ondoren Irrintzi Alaia Dantza Taldeak "San Joan Dantza", "San Joanene Kantaita" eta "Agurra" dantzak eskainiko ditu.

Jarraian, Trikitixa "Eneritz eta Naiara" bikotearen eskutik.

Udaleku irekiak

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloko haurrekin hiru astetako udaleku irekia antolatuko da ekainaren 24tik uztailaren 12ra, biak barne.

Esperientzi honekin ikasturtearen jarraipena egin nahi da, bai euskararen erabilera bultzatzeko nola ikasleen arteko harreman pertsonalen arloa lantzeko.

Lan hau astelehenetik ostiralera egingo da goizeko 10etatik eguerdiko 1era, jokoak, antzerkia, irteerak eta abar burutuko direlarik.



Ostatua martxan

Astelehenean ireki zuten Eneko Sorzabal eta Naiara Landazabal donostiarrek Zegamako Ostatua. Obra garrantzitsuak egin dira bertan, taberna bera, sukaldea eta baita komunak ere aldaketa garrantzitsuak jasan dituztelarik. Zegamako Udalak, hurrengo fasean, bigarren solairuko obrak burutzeko asmoa du, bertan 11 logela jarriko dira eta era horretan herrian lo leku zerbitzua asko hobetuko delarik. Hona hemen erreserbak egiteko Ostatu Jabetxeko telefonoa: 943 801051.

Aizkorriko Lagunen eguna

Aizkorriko Lagunen Egunean urteroko lagunarteko bazkaria egingo da udal kiroldegian. Izenematea Udaletxean egin behar da ekainaren 30 aurretik eta bakoitzaren kostua 17 euroko da.

Bestalde aipatu, dagoeneko 160 bat lagunek eman dutela izena maratonia korritzeko eta ekimen ikusgarria izateko bidea hartua duela.

Argazki lehiaketa

San Bartolometako programaren azala, argazki lehiaketaz aukeratzen da azken hiru

Ikasturte amaierako festa

Ekainaren 21ean, Aitxuri Herri Eskolako haurrek oporrak hartuko dituzte eta Guraso Elkarteak arratsalderako puzgarriak ekarriko ditu azken eguna ospatzeko.

San Joan bezpera

Ekainaren 23an San Joan arbola jasotzea izango da iluntzeko 7etan herriko txistulariek lagundurik arbola jasotzen laguntzen duenari meriendatxo ematen diolarik Udalak ohiturari eutsiz. Ilunabarrean, San Joan sua egingo da herriko plazan.

San Joan eguna

Udal arkupeetan ohiko afariak izango dira eta ondoren dantzaldia plazan Iturrioz akordeoilariarekin.

Uda 2002

Ekainaren 24tik uztailaren 24ra, Uda 2002 kanpaina antolatu du Zegamako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren programara atxikituz, eta ondorioz bi begirale hartuko dira, goizeko 10:00etatik 13:00etara haurrek jokoak, mendi irteerak eta hainbat entretenigarri izan ditzaten.

San Pedro eguna

Datorren ekainaren 29an, larunbata, San Pedro Eguna ospatuko da Goialdeko San Pedro Ermitan. Meza iluntzeko 7etan izango da.

Eduarne Albizu

Artzaintza beka

Udalak, 9015,18 euroko beka ateratu du, Aizkorri eta Urbia-ko artzaintzari buruz ikerketa lanak burutzeko. Oinarriak eskuragarri daude Udaletxean eta proiektua ekainaren 30aren aurretik entregatu behar da Udaletxean.

urte hauetan eta, aurtengo lehiaketa ere martxan dago. Argazkiak ekainaren 26 aurretik entregatu behar dira Udaletxean. Ssaria 180 euroko da.

Oinarri osoak, Udaletxeko idazkaritzan daude nahi duenaren eskura.

ONGI ETORRI taberna - jatetxea

Eguneroko menua
eguerdi eta gauetan
larunbatetan ere bai

Afariak
bataioak
jaunartzeak

Tel.: 943 88 99 07
Oriamendi, 40 BEASAIN



GUK-LAN

Berogintza - Iturgintza - Gasa

Tel.: 943 16 12 77 Faxa: 943 16 09 33
Okorro 6 - behea ORDIZIA



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, **Idiazabal**go Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.



- ✓ Aholkularitza juridikoa
- ✓ Entrepresa zerbitzuak
- ✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel.: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
Kale Nagusia, 2 **BEASAIN**

Imajina al dezakezu Goierri... GOIERRITARRARik gabe?

G o i e r r i t a r r a r e n

p o s t a g a s t u a

o r d a i n t z e k o

laguntza

SOS

hilean euro 1
Goierritarra
etxean jasotzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Telefona: **Adina:** **NAN:**

Kontu zenbakia (20 digitu):

Goierritarraren harpidedun naiz
eta hala izaten jarraitu nahi dut ☐

Ez naiz Goierritarraren harpide
eta hemendik aurrera izan nahi dut ☐

Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia
eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro (2.000 pezeta inguru)
kobratuko dizkizugu zure kontu korrontetik

Jose Insaustiren bertsoak San Juan arbola

Bertso auk 1980an jarri nituan, eta berentzat gaia San Juan arbola edo arbolak izan ziran.

Izan ere, garai batean Seguran bi jartzen ziran, bertsoetan esaten dedan bezela. Baiña gazte batzuekin itz egin nuan gai oni buruz, eta etzekiten bigarren arbolaren konturik, eta auxa da gure erri ontakoa.

1.-
Milla beatzireun da
larogeiko parten,
bertso batzuek jartzen
saiatzen naiz tarten.
Gaurko auentzat gaia
ez daukat aparten,
eta ez nago lasai
kantatu bitarten,
dakidana esan gabe
gauza naizen arten.

2.-
Ain zaitut gogokoa,
San Juan arbola,
jakiñik neroni're
jarrita nagola.
Bero neukan bitarte
sasoiko odola,
antxe izango nintzan
al bazan iñola,
oroitu gabe dana
ondo etzegola.

3.-
Arbola au jartzen da
San Juan bezperan,
baiña ez bi, Seguran
jartzen ziran eran.
Bat oraintxe bezela
eguzki-sarreran,
bestea lapurtua
goian edo beran,
naiz lendabizi naiko
ardo zarra eran.

4.-
Gasolina dexente
barrenen sartuta,
gazten ezaguera
jartzen da zartuta.
Gero mailan billa
aizkora artuta,
lan ura izan balitz
aitak beartuta,
danok jarriko giñan
odolak txartuta.

5.-
Entzuten dan garaian
ontzen kantu-otsa,
baso-lanetarako
ez da aproposa.
Baiña arantza danak
ikusiz larrosa,
ezaguera jetxi
ta indarrez osoa,
gero gaueko lanak
egunezko lotsa.



6.-
Bati zarbastak jota
begia gorritu,
ta besteari anka
erdi biurritu.
Beatz-puntetan ere
zenbait odol bitu;
naiz artutako unean
gutxi iruditu,
urrengo egunak bapo
bistaratzen ditu.

7.-
Ala ere arbola
nolabait ekarri,
jeupaka animoa
emanda alkarri.
Gero zuloa egin
eta zutik jarri,
egunsentiz etxera
presaka ta larri,
kukurrukua entzunaz
amaika oillarri.

8.-
Pixka bat berdintzean
egiten zen lana,
bi arbola jartzeko
izanik afana.
Baiña grazikoa zan
arrapatzen zana,
ondoren izaten zan
naiko zer esana,
au da neronek bizi
izandu dedana.

9.-
Kaltea baiño geio
artzen zan burlatzat,
esanaz: "Zer gorroto
daukate guretzat?".
Izan ere kalteko
dana norberetzat
gaizki dago egitea
beste norbaitentzat,
baiña au gozarena
degu zenbaitentzat.

10.-
Ezjakiñean ere
iñoiz egiten zan,
makalaren jabea
jakin gabe zein zan.
Baiña ori zenbaiti
naiz-ta garbi esan,
dana sinistutzea
seguroa etzan,
zeiñek entenditzen du
beste gazi-gezan?

11.-
Adar-joleak ere
beti an da emen,
gauzari aitamen.
Au ikusia nago
askotan nabarmen,
naiz aiek izurratu
esanikan amen,
danorekin ez dago
orrenbeste kemen.

12.-
Orain bat ipintzen da
eta askoz obe,
asarre jarri gabe
ainbat gizon noble.
Pakean ibiltzeak
balio du doble,
aberatsena baida
naiz-ta bizi pobre,
ta eskaxian baiño
obea da sobre.

OINETXE

konponketak 24 ordutan

Tintaketak
Kremailerak
Botoi forratuak
Brotxeak



Errematxeak
Kolorezko kremak
Kolorezko tintek



Plantilak
Lokarriak
Horma



Kale Nagusia, 44 Tel.: 943 88 90 89 BEASAIN

Ordutegia: 6:00-14:00 eta 16:00-20:30

zinea

ITSASONDO:

Ekainak 21, 'Marathon man', Ertoetxen, 22:00etan.

Ekainak 28, 'Bruce Lee. Operacion Dragon', Ertoetxen, 22:00etan.

LAZKAO:

Uztailak 2, Kale-zinema: 4 laburmetraia: 'Aitaguria' (Jon Andueza), 'Txotx' (Kixi), '40 Ezetz' (Kixi), 'Gorabehera' (Idoia Astigarraga eta Andone Esparza). Euskadi plazan, 22:00etan.

antzerkia

BEASAIN:

Ekainak 27, Ramon Agirre eta Joseba Senperenaren, 'Ondo esan beharko' antzez-lana, Igartza jauregian, 21:00etan. Sarrera: 3 euro.

Ekainak 28, Errail antzerki taldearen 'Gure familia', Usurbe Antzokian, 20:15ean. Sarrera: 3 euro.

GABIRIA:

Ekainak 23, Ramon Agirre eta Joseba Senperenaren, 'Ondo esan beharko' antzez-lana, elizako antzokian, 17:30ean.

LAZKAO:

Uztaila 4, 'Hau paraderoa' antzez-lana, Maizpide euskaltegiko zinema aretoan, 21:00etan.

OLABERRIA:

Ekainak 22, Trapu Zaharra taldearen 'Laugarren tenorea' ikuskizuna, 18:00etan.

ZALDIBIA:

Ekainak 21, Ramon Agirrerren 'Ondo esan beharko', Herri Antzokian, 22:30ean.

dantza

ATAUN:

Ekainak 30, XVII. dantzaritxikien saioa, 17:30ean, Aian. Ondoren, Ataungo dantzari txikien saioa.

BEASAIN:

Ekainak 23, Gala Nietoren ballet eskolako emanaldia, Usurbe Antzokian, 12:00etan.

OLABERRIA:

Ekainak 23, Aukeran taldearen Sutargi dantza ikuskizuna, 22:30ean.

ZEGAMA:

Ekainak 22, Tobera Musika Eskolako dantza taldearen saioa, txistulariek lagunduta, enparantzan, goizeko 11etan.

pailazoak

ITSASONDO:

Ekainak 22, 18:00etan: Mokolo eta Poxpolo pailazoak frontoian.

musika

ATAUN:

Ekainak 22, Urtz, Herri Antzokian, 22:00etan.

Ekainak 28, Muganix taldea, 24:00etan, Aian.

Ekainak 29, Amaia Zubiria, elizan, 23:00etan.

Ekainak 29, M-n Ezten, 24:30ean, Aian.

Uztailak 1, Rock kontzertua, Aian.

BEASAIN:

Ekainak 22, Musika eskolako bandaren kontzertua, Loinazko San Martin plazan, 19:30ean.

MUTILOA:

Ekainak 28, M-n Ezten eta Neke taldeak, 23:00etan.



Ekainak 29, Imuntzo eta Beloki, 24:00etan.

OLABERRIA:

Ekainak 21, 'Juancho, El Charro' taldea, plazan, 21:00etan.

Ekainak 22, DJ's jaialdia, Joseina Etxeberriarekin, 24:00etan.

SEGURA:

Ekainak 21, 'Trailerako 6' taldea, plazan, 23:00etan.

Ekainak 22, Muganix taldea, plazan, 23:00etan.

Ekainak 24, Joselu Anaiak, plazan, 23:30ean.

Ekainak 25, Egan taldea, plazan, 20:00etan eta 23:30ean.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



Abokatuak
Enpresen
asesoria eta
gestioa

e txekin

www.txekin.net

Etxebizitzen salmenta:

Legorreta
Beasain
Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393

e.posta: zuzenki@euskalnet.net

Elosgi, 16 LAZKAO

bertsoak

OLABERRIA:

Ekainak 24, Angel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluze, 12:00ak aldean.



SEGURA:

Ekainak 24, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso, plaza, 12:00etan.

diapositibak

BEASAIN:

Ekainak 28, R. Etxezarretaren 'Salidas varias' diapositiba emanaldia, Aizkorri Elkarte, 20:00etan.

erakusketak

ATAUN:

Uztailaren 14ra arte, Zahar-kinak erakusketa Auzoeta kiroldegian. 11:00-14:00 eta 17:00-20:00.

BEASAIN:

Irailaren 30era arte, Ars Lig-nae erakusketa, Igartza jauregian.

Ekainaren 28ra arte, Victor Jesusen ikasleen eskultura erakusketa, Aterpe tabernan.

Ekainaren 23ra arte, Urbietarte plastikoen zentroko ikasleen margoen erakusketa, Usurbe antzokian.

Ekainaren 29tik aurrera, Maria Castillaren oleo lanak, Aterpe tabernan.

ORDIZIA:

Ekainaren 28ra arte, Jose Vicente Cos artistaren eskultura erakusketa, Barrenan.

SEGURA:

Ekainaren 25era arte, Javier Sotoren pintura erakusketa, Ardixarra etxean.

V. Igartza Literatur sorkuntzako beka

Beasaingo Udalak, CAF enpresaren babesarekin eta Elkarla-nean argitaletxearen laguntzarekin, kaleratutako V. Igartza Literatur Sorkuntzako bekan parte hartzeko epea uztailaren 1an amaituko da. Euskal kultura zabaldu eta idazle gazteen lanari laguntza ematea du helburu beka honek.

Idazle berrientzako beka da, 35 urtetik beherakoentzat. Bakarka bi liburu baino gehiago argitaratuak ez izatea da bi-garren baldintza. Deialdira, narratibako lanak egiteko proiektuak aurkez litezke, jatorrizkoak eta euskaraz sortuak, inon argitaratu gabeak, sarituak izan ez direnak eta beste inondik moldatuak ez direnak.

Beasaingo udaletxeko Euskara Zerbitzura bidal daitezke proiektuak. Epaimahaia Unai Elorriagak, Jasone Osorok eta Xabier Mendiguren Elizegik osatuko dute. Sei mila euroko diru-laguntza izango du bekak.

ZALDIBIA:

Ekainaren 21era arte, 'Ama Lurraren defentsan' erakusketak, Kultur etxean.

ZEGAMA:

Astebukaeretan, Ehungintza tailerraren erakusketa. Ordu-egia: 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.
Ekainak 22-23: Arriola (Plaza Nagusia - Ordizia). 943 882628.
Ekainak 29-30: Azpilikueta (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943 880152.

OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabe



Larraitz bidea

GAINTZA

☎ 943 88 98 48

Aipe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84

IKASTEK AKADEMIA

2002.eko UDA

Tailerrak: irakurmena, idazmena, matematika

Datorren ikasturterako prestaketa:

- ✖ Euskara, ingelera
- ✖ Fisika, kimika
- ✖ Latina
- ✖ Matematika
- ✖ Testu komentatuak
- ✖ Maila eta gai guztiak

Selektibitatea, unibertsitaterako prestaketa.

Unibertsitate maila

- ✖ Goierriko Unibertsitatea
- ✖ Psikologia, farmazia
- ✖ Enpresaritza
- ✖ Etab.

ikastekakademia@latinmail.com
http://usuarios.tripod.es/ikastek

☎ 943 160 120

Joan Iturralde, 5 BEASAIN

Etxebizitzak

salgai

➡ Etxebizitza salgai Beasainen. Dena irekia. Erreformatu berria eta altzariekin. 943160917.

➡ Ataunen pisua salgai. Ekonomikoa. 943180106.

➡ Etxe eraiki berria salgai, Ordiziako Filipineta kalean. 90 m². 3 logela, 2 bainu, egongela eta sukalde jantzia. Garaje eta trasteroarekin. Estreinatze. 225.000 euro. 943027022.

➡ Donostian, Groseko geltokiaren ondoan, etxea salgai. 2 logela. 659729135. Arratsaldeko 5etatik 9etara deitu.

➡ Itsasondan etxebizitza salgai. 943889576.

➡ Lazkaon etxebizitza unifamiliarra salgai. Terrerorekin. 943888699 - 943086895.

➡ Ikaztegiaren 127 m²ko etxebizitza unifamiliarra salgai. Tren geltokitik gertu. Prezio oso interesgarria. 678240829.

➡ Ikaztegiaren etxebizitza salgai. 107 m² eta garajea. Sukaldea, saloia, 4 logela eta 2 bainugela. 943084674 - 607085145. Iluntzetan deitu.

konpartitu

➡ CAFeko bi ingenierrak Beasaingo Oriamendi kalean dagoen pisu bat elkarbanatuko lukete. Bereziki banketxetako langile edo irakasleeetan pentsatzen da. 943027799. (20:00etatik aurrera deitu) - 456761030.

➡ Iruñean ikasle pisu bat osatzeko neska bat behar da. 605752095.

➡ Madrilan ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzaileak. 914090390.

errentan eman

➡ Apartamentua alokatzen da, Benicasimen (Castellon). Hondartza ondoan. 2 igerileku eta kirol instalakuntzak. Gehienez 4 pertsona. 678929221.

➡ Uztailerako Donostian, Egian, pisua alokatzen da. Hilabete osoa edo erdizka. 943-028411.

➡ Laredon apartamentua alokatzen dut, hondartza ondoan. 943795280 - 656717745.

➡ Jacan apartamentua alokatzen da, igerilekuarekin. 943216684.

➡ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretan. 948539381.

Lokalak

salgai

➡ Ataunen lokala salgai. 943180106.

➡ Beasainen lokala salgai edo alokeran. 2 pisukoa. Bakoitza 55 m²koa. Obra egin berria. 943889089.

Negozia

alokairuan eman

➡ Jatetxea alokatzen da, jubilarzioagatik. Bezzero finkoa. Errendimendu ona. Pertsona arduratsua eta esperientziaduna eskatzen da. Informazio pertsonala. 676049931.

Garajeak

salgai

➡ Beasainen lur azpiko 2 garaje salgai, J.M. Iturrioz 7an. 943187424 - 659939779.

Lur sailak

erosi

➡ Goierri, hektarea 1 eta 2 arteko lur saila erosiko nuke. 943160563.

Animaliak

Opari

➡ Bi hilabeteko katakume politik opari. Ardura handiko pertsona. 943888171.

Bestelakoak

salgai

➡ Astra GSi 16 V edo Astra GSi-rentzat Blisstein amortiguadoreak eta eibach muelleak salgai. Oso denbora gutxi dute. 70.000 pezeta. 636070874.

➡ Gurdi-denda salgai. 3 logela eta abantzea. 943887122.

➡ Bi enziklopedia bilduma salgai: Euskara batua (3 tomo) eta Jakintza Bideak (5 tomo). 943882467 - 626610384.

➡ Super turismo markako 205 x 55 x 16 llantak salgai. Kubieta eta guzti. 943800032.

➡ Mercedes Vita bantentzako 17 "ko llantak salgai, OZracing etxe-koak. 650966705.

➡ Marshall '30 aniversario' kitar amplifikagailua (kabezala eta pantaila) oso merke saltzen dut. 160.000 peze-ta. Anplaren fight case edo funda dohainik. 943884795. Mikel. 17:00eta



"LURRA"
Naturako zerbitzu turistikoak

J.Ramón Agirre "Márron"
Tel. 943 18 02 53
615 781 287
E-mail: lurra@pirineum.net

www.pirineum.net Pirinioak pausoz pauso

Murgil zaitez inguru paregabe honetan, aditu eta natur maitaleen laguntzaz

Gainez gain, itsasotik itsasorako zeharkaldiak

1. Mediterraneo - Banyuls - Eyne (7 etapa) • 2. Eyne - Tavascan (7 etapa)
3. Tavascan - Pineta (7 etapa) • 4. Pineta - Belagoa (7 etapa)
5. Belagoa - Hondarribi (7 etapa)



Ibilgailuak

salgai

- ➔ Montesa Gota 315R motorra salgai. 99 urtekoa. Egoera onean. 943766401 605712473.
- ➔ Kawasaki GPX-600 motorra salgai. Egoera onean. 943766401 605712473.
- ➔ Honda CBR 600F motorra salgai. Oso egoera onean, ongi zaindua. 93. urtekoa. 653720774.
- ➔ Gas Gas Jt 32 motorra salgai. 350 m³. Oso egoera onean. 285.000 pezeta. 606206157.
- ➔ Opel Omega 2.5 TD salgai. Ondo zaindua. 12.000 euro. 619750314.
- ➔ Nissan Banette bat, kanpinerako prestatua, salgai. 943290312 (gauez).
- ➔ Voslkswagen Golf GTI autoa salgai. L-U. 686261188 - 943806022 (Patxi).
- ➔ Golf-II GTI salgai. SS-AC. 300.000 pezetan. 655716395. Gaue-tan deitu.
- ➔ Kawasaki GPX 600 motorra salgai. Egoera onean. 1.200 euro. 943766401 - 605712473.

Lana

eskaerak

- ➔ Sagardotegi batean bi langile behar dira: sukaldari laguntzaile bat aste gutzirako eta zerbitzari bat astebuka-erarako. 943882049.
- ➔ Hartz klinikako la-guntzailea edo hartz hi-gienista behar da. Espe-rientziaduna bada hobe. 943889287.
- ➔ Ordiziako talde ba-tek abeslaria, baxua eta tekla-jolea behar ditu. Ezinbestekoa jotzeko gogoia izatea. Fear Fac-tory eta Sepultura tal-den moduko musika egiteko. Mikander. 636932974.
- ➔ Gizonezko bat be-har da beste gizonezko baten garbitasunez ar-duratzeko. Astean behin. Hileko 60,10 eu-ro (10.000 pezeta). 943084202.
- ➔ Ileapaindegirako ileapaintzailea behar da, larunbatetarako. 943800002.
- ➔ Neska edo emaku-mea behar da, Beasai-nen 2 haur zaintzeko. 943887652.
- ➔ Klinika laguntzaile-ak, garbitzaileak eta su-kaldariak behar dira. Kurrikuluma bidali: Eu-len fexiplan. Esteban Lasa, 2. Beasain.

➔ 2 haur zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da Lazkaon. 943161019.

eskaintzak

- ➔ 20 urteko neska gazteak umeak zainduko lituzke astean zehar (Beasainen ahal bada). 649123591.
- ➔ 21 urteko neska es-kaintzen da udan taber-nan edo dendan lan egi-teko. 943160181 (arra-tsaldez deitu).
- ➔ 23 urteko neska es-perientziaduna eskain-tzen da, haurrak zain-tzeko edota etxeko la-nak egiteko. 652767686
- ➔ Edozein lanerako mutila eskaintzen da. 943430640 - 639983891.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza

943 884 401

SUKALDARI LAGUNTZAILEA

Goierri. Erref. 81512/3

SOLDATZAILE KALDEREROA

Goierri. Erref. 82201/7

MUNTATZAILE-SOLDATZAILEA

Goierri. Erref. 80840/2

IGELTSERO PEOIA

Goierri. Erref. 80839/5

MANTENIMENDUKO ELEKTRIZISTA

Goierri. Erref. 78902/5

KAMIOI TXIKIAREN GIDARIA

Goierri. Erref. 80512/6

AROTZA/INDUSTRIAL MAILAKO OFIZIALA

Tolosaldean. Erref. 81347/4

SUKALDARIA

Tolosan. Erref. 80976/4

PASTELGILEA

Tolosan. Erref. 80790/4

25 ETXEZ ETXEGO LAGUNTZAILE

Deba Goiena. Erref. 79768/3

SOMELIERRA

Donostialdean. Erref. 81566/3

ZUZENDARI KOMERTZIALA

Donostialdean. Erref. 82493/1

KALITATE AUDITOREA

Nafarroan. Erref. 80715/3

OBRA BURUA

Donostialdean. Erref. 80804/1



The Clover School of Languages

Uztaila lan garaia
jakinduria da saria,
zatoz lagunduko dizugu,
denon artean lortuko dugu,
zurea da aukera
frantsesa edo ingelera.

MATRIKULA
DOHAINIK

Domingo Unanue Pl., 5

943 16 20 16

ORDIZIA

(H.E.O. eta abendurako
Cambridgeko azterketak
ere prestatzen ditugu)



Olaberriako jaiak, 1985-86 inguruan

Sanjoanetako paella lehiaketan ateratako argazkia da goikoa.

Zutik, ezkerretik eskuinera: Belen Nieto, Loli Andueza, Loli Flores eta M. Jesus Ijurco.

Pikotxean: M. Jesus Muñoz, Inmaculada Bueno eta Isabel Mendoza.



INDUSTRIAS LANDU KOOP. E.

PREZISIOKO MEKANIKA OROKORRA

☎ 943 88 21 52 - 943 88 61 94

Faxa: 943 88 99 10

☎ 943 80 21 80

95 posta kutxa BEASAN

6. Industrialdea, lurre auzoa OLABERRIA

Guardi industrialdea, 25 IDIAZABAL

GARTXO JATETXEA

gosariak
hamaiketakoak
eguneroko menua

Aukera haundia

Industrialdea, 118

☎ 943 88 13 09

OLABERRIA



Jai zoriontsuak pasa!

AUTO-ZERBITZU
GELTOKIA

24 ORDUKO ZERBITZUA

☎ 943 88 01 61 lurre auzoa
OLABERRIA



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

- ✱ Sagardoa txotxetik urte guztian
- ✱ Bataio, jaunartze, lagunarteko eta negozio bazkariak
- ✱ Karta

Aurrez deitzea komeni da

Tfnoa.: 943 88 20 49
OLABERRIA

OGEi S. A. L.

Eraikuntza metalikoak

- ✓ Hormigoneren fabrikazioa
- ✓ Hormigonatu hornitegiak
- ✓ Fatxadetako jasogailuak

☎ 943 88 52 50 - 4
lurre Auzoa, z/g
OLABERRIA
12 P.K. BEASAIN

**Kanaloiak
Bajanteak
Fatxadak**

...



**Pintura
Teilatuak
Tximiniak**

...

Tfnoa.: 605 712 018

Ezkurdiategi Etxea

ATAUN



Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korrederoen prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

ERAKUSKETA:
Lorategiko eta
terrazako altzariak,
kolore ezberdinetako
aluminio lakatuan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42 **LAZKAO**
toldosagustin.com e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

Aurtengo udan zuri egokituko gatzazkizu:

Igeriketako hasierako eta hobekuntzako ikastaroak,
tenisa, udaleku txikia, kirol-udalekua, kirol-festa,
kirol-abentura, zaldiketa-ikastaroa, abentura
naturan, piraguismoa, arkuzko tiraketa, eskalada,
aerobica, sasoian jartzeko terapia-ariketak,
soinketa, mantentzeko soinketa, hirugarren
adinekoentzako jarduera bereziak, etab.

2002ko uda

antzizar kiroldegia. tel.943 88 79 00



BEASÁIN UDALA



Gipuzkoako Foru Ahdundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Euzkerta eta Kirol Departamentua
Departamento de Euzkera y Deportes